


TOKIKOM

2015eko azaroa | 153. zenbakia

aitzor!

ko aldizkaria



Juan Mari Dañobeitia,
pelotari ohia

Lezamarra



Izan zaitez protagonista



egizu Txorierri EUSKALDUNA!

Lagundu, bizi, beldurra galdu, berba egin, goxatu, BERBALAGUNA!

IZENA EMATEKO:

Telf: **635.75.35.95** eposta: **txorierri.berbalaguna@gmail.com**

AEK: 94.454.3967 Udal euskaltegia: 94.454.0062 Mankomunitatea: 94.454.0350

Laguntzaileak:




Antolatzailea:



Babesleak:



-  **4** Eritxiak
-  **6** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Borja Canibe, skaterra
-  **12** Gurean izan da... JJ Vaquero, komikoa
-  **14** Gaztea eta... Ane Uruburu, dantzaria
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Juan Mari Dañobeitia, pilotari ohia
-  **24** Euskararen Eguna
-  **26** Txorierritartua... Chafik Harrathi, ikertzailea
-  **28** *Isilpean gordea*, Toti Martinez de Lezea
-  **30** Elkarteak... Loiuko Bakarrak
-  **32** Txorierri ezagutu... Lezama eta burdina
-  **34** Teknologia... Xuxen 5
-  **35** Aikorritzeta... Zelakoa da infernua?
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



24 Euskararen Eguna



30 Loiuko Bakarrak gazte elkarte



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA**

Viceconsejería de Política Lingüística



**Bizkaiko Foru
Aldundia**
**Diputación
Foral de Bizkaia**



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarten Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx eta Altxora)

Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea
eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Asier Oruetxebarria, Jabi Agirre, Idoia Andrés, Jon
Goikouria Larrabeiti, Atotz Goikoetxea, Jose Angel Mentxaka, Oihana
Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esan-
enen edota eritxien erantzukizunik.

Apur bat itxaron

Urriak 30, barikua, etxeko postontzia zabaltzera noa eta supermerkadu handi horreetako baten propaganda... Heldu dira Gabonak! Jostailuen gaineko liburuxka bat. Bezero arrantza hasi da. Eta guk umeen atxakiagaz besiguen moduen amua iruntsi egiten dogu. "Gero eta arinago dabilz honeek" pentsau neban nik. Azaroak 2, astelehena, lanera heldu eta egunero moduen beharreko posta elektronikoa zabaltzen dot. Posta baten izenburua hau zan, "Gabonetako loteria". Hemen be bai! Ezin dot gehiago eta egutegia hartzen dot, abenduaren 24rako 52 egun falta dira. Ia bi hilabete. Gogora etorri jatan telebistan emoten zan aspaldiko iragarki bat. Azal baltzeko kubatar edo dominikar gizon batek gaztelaniaz erantzuten eban "me estás estresando". Ezin da apur bat itxaron. Begietatik sartu gura deuskuez erosi beharreko guztiak eta behar ez doguzanak be bai. Holan jarraituz gero Gabonak Sanferminekaz batera hasiko gara presta-

ten. Emoistaz txupinerako txanpan botila bat eta Gabon Zahar egunerako langostino kutxa bat. Hau idazten dodan birtartean eguraldi itzela dago kanpoan, 20 gradu, zelan pentsauko dogu Gabonetan?

Gaur egun fruta dendara joaten garenean, bardin da urtaroa, danetarik dauka. Abuztuan laranjak edo apirilean mahatsa. Bardin egin daikegu Gabonakaz, abenduan ospatu beharrean urrian ospatuko doguz. Gure herrian nahiko modan dagoz urrian agertu eta desagertu egiten diran jai egunak. Eta, Gabonak, ia mundu guztiak ospatzen dauzanez, nahiko folklorikoa dan urriaren 28an ospatu ahal doguz. San Simon eta San Juda da egun hori. Eta badakigu "joan zen udea eta negua heldu da" eta negua heltzen danetik hiru egunetara Gabon eguna da. Entzunda daukat ikatzaren salmentaren jatsierea dala-eta Olentzero jaunak opariak banatzeko denpora gehiago daukala. Alde horretatik ez litzateke arazorik egongo.



ASIER ORUETXEBARRIA
(Irakaslea)

Gauza bakotzak bere sasoia dauka, urtarok, elikagaiak, gizakion aro desbardiak... errespetau daiguzan jaiak eta erosteko garaiak. Kontsumitzaileak gara urtean zehar, honek ez dauka erremediorik, baina, Gabon kontsumista honek zenbat eta beranduago hasi hobeto. Nire txikerrak azkenengo astetan 18 opari desberdin aukeratu dauz, abendura heltzen garanerako ez dakit zenbatetara helduko dan. Eta, jakin badakit arazo hau daukan bakarra ez nazana.

Do ut des (emoten deusut zeuk be emoteko)

Eguneroko goizeko lehen ordua benetan dala gozagarria animaliakaz bizi danarentzat. Ohetik altxatzeaz batera ate kontratan hasten da txakurra saltoka, buztana astintzen, jakin badakilako laster gosalduko dauzala bezperako jan-hondakinak. Egunean zehar erne mantenduko da norbait etxeratzen danean "txautxauka" eginaz abisua emoteko. Oiloak be "kakara-kukurruka" artagarauak mokokatzearen zain; eguzkiaz batera hegoak astindu eta otatik hegazka lurrera, eguneroko oparia di-da baten barruratzeko; arin ibili beharra dago ondokoak dana garbitu



JABI AGIRRE
(Zorritzetan elkartearen kidea)

baino lehen. Trukean, erditze labur batez, arrautza.

Zelaian dagozan ardiak hurreratu dira "beekeka" etxe ondora, badakielako eurak be partaide dirala negozioan; gauean hai-zeak botatako fruta batzuk askan izango dabezala, eta ernaldian pentsua. Trukean, gaur ezin da ezer emon, beharbada, baina hilabete batzuk barru jaioko diran bildotsak, esnea... zuretzat gordetako opariak izango dira. Hartzeko prest, aurretiaz emon bada, edota gaur emon, bihar hartzeko, eta ez, norbaitek esaten eban bezala "emoteko tonto eta hartzeko pronto". Aurrerantza egunero kontrolau beharreko balantzea "HARTU-EMON" "EMON-HARTU" norbera-gandik hasiz besteena aztertu aurretik.

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldekone
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urte 7, beheak
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

MUNDUAREN AZKEN MUTURREKO EROSLEA

 **EROSKI** online
zurekin



EROSKI online Supermerkatuan lurraldearen %100era iristen gara eta Euskadiko eta Nafarroako landatar eremu guztietan ematen dugu zerbitzua. Zauden lekuan zaudela ere zurekin egoteko, zure munduaren, gure lurraldearen azken muturrean egonda ere.

eroski.es

lurraldearen
%100   -era
iristen gara

Bertso bazkari musikatua, Sondikan

Altzora hango euskara elkarteak antolatutako abenduaren 12rako. Bazkaria Gaztañaga jate-txean izango da eguerdiko ordu bietan eta bertan Fredi Paiak eta Arkaitz Estiballesek hartuko dute parte. Bertsolariek bertsoak bota beharko dituzte, ekitaldian ere ari-tuko diren musikariek ipinitako erritmoari jarraituta. Bazkariak 25 euro balio du eta, plaza mugatuak daudenez, izena eman behar da aldezturik. Telefono zenbaki honetara deitu daiteke: 635 75 35 95.

Gabonetako txokoa, Lezaman

Guraso elkarteak eta Lezamako Udalak lehenengo aldiz antolatutako Gabonetako txokoa. Abenduaren 22tik urtarrilaren 5era egongo da zabalik, eta bertan urte biko umeek eta seigarren mailara arteko umeek hartu ahalko dute parte. Txokoa eskolan ipiniko da eta, besteak beste, tailerrak, eskulanak, musika eta kirola eskainiko dira. Izena ematea abenduaren 9a baino lehen egin behar da: eskolako umeak, eskolan bertan; eta gaitz nontzakoak, liburutegian. Egitasmoak hiru aste iraungo du eta badago izena ematea asteko egiteko aukera.

Greetings from Derio

a: Photoliditz

Hala du izena Derioko Argazki Taldeak (DAT) abenduaren 15etik urtarrilaren 15era bitartean Kultur Birikan ikusgai ipiniko duen argazki erakusketak. Azaldu diguten bezala, erakusketa 40 argazki inguruk osatuko dute eta bertan 15 egilek hartuko dute parte. Abenduaren 14an, 19:30ean, erakusketa aurkeztuko da jendaurrean. Egileek argazkiei buruzko azalpenak eman eta azalduketoen galderak erantzunak dituzte. Sarrera libre izango da, lekua bete arte.

Erakusketak Derioko bizitza eta giroa islatzea du helburu. Adibidez, lerro hauekin batera ipini dugun argazkia Photoliditzek egin du eta, bere esanetan, "merkataritzak eta ostalaritzak giroa ematen diote herriari. Haiek barik, leku triste eta aspergarria da, lo-hiria moduan ezagutzen duguna. Merkataritza-gune batera joateko autoa hartu baino lehen, pentsatu zer nolako herria nahi duzun. Herriaren giroa guztion eguneroko eginkizuna da".

Informazio gehiago:
www.datfotoderio.com



HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Pakearen Plaza, 1 - 1º A
DERIO

Telefona: 944 543 709

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORRIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai jarraun Facebooken

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

lasai

Luis Mº Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabarri, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatiasalai@gmail.com

Altzari
EBANISTERIA - CARPINTERIA, S.L.

Zureko lanetan espezialistak

Alain Pomposo Zarate
946 740 141
663 209 209

www.altzari.com
altzari@altzari.com

Luisena, 2 - Belako Elkartegia, mod. 203-2 - 48100 MUNGIA

XURREGOITI
JATETXEA

Lauriola etorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteaumegoitia.com

elekma

URRATZAREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOOKAK

Lehenengo mailak • Preziarik onenak

BOSCH, SIEMENS, BALAY

Tasari etorbidea, 25-27 • 48180 Lolu
T: 944 539 232
www.elekma.es

Akerbeltz jaia, Larrabetzun



a: Idoia Andrés

Halloween jaia gero eta ezaguna da gure artean, eta azken urteotan ohikoa da umeak zein gazteak urriaren 31ko gauean mozarrotuta ikustea: gozoki bila, lehenengoak; eta parrandatxo egiteko gogoarekin, bigarrenak. Guztiek urteko gaurik beldurgarriena primeran pasatzeko asmoz. Baina, batez ere Estatu Batuetatik eta Ingalaterratik ekarritako eredua barneratzen gabiltzan arren, egia esateko, ospakizun hori batzuek pentsatzen duten bezain arrotza ez da. Izan ere,

1950. hamarkadara arte, urriaren 31n, Arimen Gaia ospatzeko ohitura zegoen Euskal Herriko eskualde gehienetan. Gainera, ikerlariak jasotakoaren arabera, kanpotik etorritako eredua eta gurea ez dira hain ezberdinak: "Gaur egungo Halloween komertzialagotik desberdin samar, noski, baina funtsean jai berbera zen: gazte koadrilak elkartu, kalabazak (edo arbiak) hustu, kandelak sartu barruan, kalerik kale ibili beste batzuk beldurtuz... eta guztia ere heriotzarekin estuki lotutako giroan (arimak, fantasmak, hildakoak...). Izara eta maizdirez mozo-



rrotzen ziren "ganberroen" ipuinak ere ja-so izan ditugu", bildu dute ahotsak.eus webgunean.

Euskal Kultura aldarrikatzeko, Txin-pasmendi guraso elkarteak, Kukubel aisialdi elkarteak eta herriko beste kultur elkarte batzuek Akerbeltz jaia antolatu zuten lehenengo aldiz Larrabetzun, gau hartarako. "Jendeak uste du Halloween jaia bakarrik Estatu Batuetan antolatzen dela, baina aspaldian bertan ere egiten ziren ospakizunak. Jaia aukera ona da euskara eta gure kultura bultzatzeko", esan digute antolatzaileek.

Ekitaldiak arratsaldean nahiz gauean izan ziren. Hala, arratsaldean umeei zuzendutako mozzorro tailerra egin zen eta buru handien kalejira batek herria zeharkatu zuen. Gauean ere atera ziren kalejira eta hori oso ikusgarria izan zen, suak eta petardoak piztu zirelako. "Herri guztia azaldu da guri laguntzeko prest eta ekitaldian hartu dute parte. Beraz, oso pozik gaude eta datorren urtean jarraipena emango diogu Akerbeltz jaiari".



LARRABETZU
☎ 94 455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)



PELUKERIA
ESTERKA
94 455 81 44
Angulu 2, beheia Larrabetzu-Bizkaia



LOREGARBI
GARBIKETA ZERBITZUAK
Gutxi-ikusiak, orokorrean
Auzokoen komunitateak
Mantentzeko gutxi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Oliniko amariako garbikerak
Baserriak
Zabier bilaketa

Besaide Plaza, 1 - B* Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93



SARRIKOLA
OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Mungia/Larrabetzu, Bertso-erakundearen egitasmoa

Euskal Herriko Helduen Bertso Eskolen Batzordeak Bertso-erakundearen egitasmoa ipini du abian, helduen bertso eskolen arteko harremanak sustatzeko asmoz. Bertan 26 bertso-erakundek eman dute izena eta haien artean Mungia eta Larrabetzuko lagunek osatutakoa dago.

Bertso-erakundearen artean multzoak osatu dira, guztira bederatzi multzo. Bertso-erakunde bakoitzak bere multzo-ko beste biak hartuko ditu etxean, eta beste bi herrietako bertso-erakundek antolatutako ekitaldietara joango da. Emanaldia edozein motatakoa izan daiteke: bertso-saio formala, bertso-bazkaria, bertso-antzerkia, bertso-jolasen bat... Mungia/Larrabetzukoak Oñati eta Sakanako eskola-koen lagunekin daude multzo berean. Bertso-erakundearen egitasmoa azarotik maiatzaren bitartean izango da.

Memoriaren oroigarria, Loiu

Azaroaren 10ean Memoriaren Eguna ospatu zen. Eguna horrek biktimak guztiak, salbuespenik gabe, gogora ekartzea zuen helburu. Erakunde publikoek bat egin zuten egitasmoarekin eta adierazpenak irakurtzeaz gain, isiluneak eta elkarretaratzeak egin ziren. Loiu, oroigarri bat ere ipini zuten Elotxelerrin. GAEko kideek (Grupos Armados Españoles) herriko neska bat bahitu, bortxatu eta hil egin zuten 1980. urtean.



a: Loiu Udal



Baserri Antzokiaren lehen harria ipini zen Derion

Ekitaldia urriaren 30ean egin zen Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkean, Derion. Unai Rementeria Bizkaiko Aldun Nagusiak, Xabier Goienetxe Baserri Antzokia Fundazioaren presidentek, Carlos García INBISA eraikuntza enpresaren zuzendari orokorrak, Igotz López Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko presidentek eta Juan Luis Goikoetxea Baserri Antzokia Fundazioaren idazkariak hartu zuten parte ekitaldian. Era berean, alkateak, euskara elkartearen ordezkariak, euskaltzaleak eta lagunak batu ziren bertan.

Azpiegitura berriaren ardatz nagusiak euskara eta euskal kultura izango dira, eta Rementeriak oso proiektu garrantzitsutzat jo zuen. "Iragana eta geroa lotzen dituen egitasmoa da Baserri Antzokia, eta

bere baitan gure kultura eta patrimonioa hartzen ditu". Bestalde, Goienetxek azpimarratu zuen Baserri Antzokiak Txorierriko eta inguruko euskaltzaleen topagune bihurtzea duela helburu. Era berean, bertoko enpresei eta haien langileei ere emango die zerbitzua, eta bailarako ekoizleek eta merkataritzak ere lekua izango dute bertan.

Eraikina altxatuko den lekuan kutxa bat sartu zuten lurrean, eta horren barruan ekitaldiaren akta, egun horretako egunkariak eta AIKOR! Txorierriko herri aldizkaria, legezko dirua, Mikel Zarateren olerki bat eta eraikinaren planoak ipini zituzten. Aurreikuspenen arabera, lanek zortzi hilabete iraungo dute eta eraikina zabaltzeko beste hilabete bat beharko da.



HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

Alaia
fruta-denda
Etxez etxeko zerbitzua
Bertoko produktua
Tallerr. 5
48170 Zamudio
94 452 05 85



ZMA
taberna 3
Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

a: Jon Goikouria

Txorierriko Gabon-kanten jaialdia hogeita hamargarren aldiz egingo da abenduaren 12tik 27ra bitartean. Sei kontzertu eskainiko dira, eta kanpoko 10 abesbatza gonbidatu dira jaialdian parte hartzera. Orotara, 16 abesbatzak eskainiko dute emanaldia. Besteak beste, *Elurra*, *Jingle Bells Rock*, *Ave Maria*, *Let it snow* eta *Hator*, *hator* izango ditugu entzungai.

Lehenengo kontzertua abenduaren 12an izango da Larrabetzuko Andra Mari elizan, iluntzeko 8etan. Gaztelumendi abesbatzarekin batera, Usansoloko Orfeoia eta Sanfuenteseko Emakumeen Abesbatza arituko dira bertan. Hurrengo hitzordua Lezamako Andra Mari elizan izango dugu abenduaren 18an, iluntzeko 8etan. Emanaldia abesbatza hauen eskutik izango da: Ekidazu Lezamako abesbatza, Mungiako Tantik Korala eta Bilboko Arte Factum abesbatza.

Sondikak hurrengo egunean, abenduaren 19an, hartuko du jaialdia. Anfitrioiak Txuma Olagüe talde korala eta Txuma Olagüe abesbatza izango dira, eta gonbidatuak, Barakaldoko Kantarte Gazteder abesbatzaren kideak. Emanaldia iluntzeko 7:45ean hasiko da San Joan elizan. Jaialdia abenduaren 20an ailegatuko da Zamudiora. San Martin elizan, goizeko 11:45ean, hauek abestuko dute: Zamudioko Kamara Korala, Las Carreraseko Muñatones zortzikotea eta Durangoko Begi Argiak ganbara abesbatza. Bestalde, Derion abenduaren 26an egongo da

Hamasei abesbatzek hartuko dute parte Gabon-kanten jaialdian



Gabon-kantak entzuteko aukera. Hango Ipar-Alde abesbatzarekin batera, Getxoko Arrigunaga Kamara Koralak eta Plentziako Iraunkor abesbatzak eskainiko dute emanaldia, iluntzeko 8tik aurrera, San Isidro elizan.

Jaialdiari abenduaren 27an emango diote amaiera Loiuko San Pedro elizan. Txorierriko abesbatza guztiek parte hartuko dute ekitaldian eta bakoitzak hiru kantu abestuko ditu. Emanaldia 12:45ean hasiko da.



**Garmendia
ardoak**

Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49



HORTZ KLINIKA

Idoia Zubietza

Osasun-zentroa & Hortz-estekia
HORTZ-PLANTEAK - ORTUDUNTZA-ESTETIKA
DENTARRAK ZEPHELDUNAK

Dr. Amela kalea, 11 - 1. ez. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 62 22
Urte plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 453 13 70



**ASADOR
FUENTENE** berria
"lur eta itsasoko baserria"

Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina
txingarretan erreta

LEKUNBIZ-AUZOA 26
ZAMUDIO (BIZKAIA)
94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com



**GAMINIZ
JATETXEA**

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212. Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com



a: Iban Sanjuan Arrieta

Txakurkross lasterketa iaz antolatzen zuen lehenengo aldiz Larrabetzun. "Oso ekitaldi arrakastatsua izan zen. Gainera, txakurkrossak gorakada handia eduki du aspaldi honetan, eta horregatik erabaki genuen lasterketa aurten ere egitea", esan digu Haritz Carrera antolatzaileetarikoa batek.

Lasterketaren bigarren edizioa urriaren 31n egin zen eta bertan 105 korrikalarik, eta txakurrek, hartu zuten parte, iaz baino 21 bikote gehiagok. Proba finkatzen doan seinale da hori. "Estatuan orain arte egindako lasterketarik jendetsuena izan da. Hori dela-eta erabaki genuen irteerak txandaka egitea: bost lagun, 20 segundoro. Hala, txakurrak zein jabeak la-

Etxeberria eta Touriño gailendu ziren Larrabetzuko Txakurkrossean

saiago egon ziren irteeran eta ekidin genituen bertan ohikoak diren iskanbilak". Ibilbidea ere iaz baino apur bat laburragoa izan da aurten, lau kilometrokoa, berriz handia egiten zuelako. "Osterantzean, txakurrek oso txarto pasatzen dute".

Gizonezkoen kategorian, Mikel Etxeberria zumaiaarrak eta Dukek irabazi zuten txapela. Beren atzean, Pedro Etxeberria eta Suko, eta Gaizka Aretxaga eta Txispi sartu ziren. Bikote biok, bizkaitarrak. Emakumezkoen kategorian, Mónica Touriño galiziarra eta Caramelo gailendu ziren. Sonia Albarez zumaiaarra eta Destro bigarren sartu ziren helmugara; eta Miraia Berenguer irundarra eta Koga, hirugarren. Sariak senior, junior eta beterranoen kategorietan banandu ziren. Bestalde, Haritz Carrerak eta Haikak, eta Adriana Andinok eta Dumak herriko sari bana eraman zuten. Emakumezkoen kategorian ez zen

Larrabetzuko parte-hartzailearik egon, eta lehen postuan gelditu zen Adriana txorierritarra denez, berari eman zioten herriko saria.

Lasterketaren ostean, txakurkrossaren erakustaldi txikiak egin ziren Andra Mari kalean eta tabernarietako pintxoak prestatu zituzten. Larrabetzuko Euskadiko Txakurkross Ligaren eta Estatuko iparraldeko Ligaren (Galizia, Asturias eta Euskal Herria) lasterketako bat da.



Moikave taldeak Sondikan grabatu du bere lehen bideoklipa

El pantano del olvido abestiaren bideoklipa da, eta abuztu eta irailaren bitartean grabatu dute Ola aldean. Jon Goikuria sondikoztarra taldearen baxu-jolea da. Azaldu digun moduan, abestia desengainuari buruzkoa da eta taldekideetarikoa baten esperientzia pertsonalean dago oinarrituta. Horregatik natura hilari eta estetika goibelari lotutako giro baten bila ibili dira. "Olan badago baso txiki bat; eta bertan, etxola bat. Lekua garbitu, pintatu eta atondu egin genuen eta plano batzuk grabatu genituen bertan. Eszenaren bat



ere Asua ibaian grabatu dugu, Sangronizera ailegatu baino lehen, eta Leioan".

Taldekide bik ikus-entzunezko komunikazioa ikasi dute eta bideoklipa eurek grabatu dute, beren baliabideak erabilia eta inongo produkzio-etxearen laguntza barik. "Saiatu gara lan profesionala egiten, eta bideoklipak amateur kutsurik ez izaten". Gainera, aktore profesional bat kontratatu dute han agertzeko. Bideoklipa YouTuben dago ikusgai eta taldearen webgunean: moikave.com.

Moikave rock and blues taldea da. *Hora Magora* beren lehen diskoa da eta *El pantano del olvido* abestia haren barruan dago. Diskoa otsailean kaleratu zuten, eta gaur egun bigarren lanaren abestiak prestatzen dabilta.

RPS: 16470

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5. behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18



TALLERES JUAN ANDRES

AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torreanagaiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LEANDRO LANDETA



HARAGITEGIA-URDAITEGIA

Oñe Kalea, 1 • Tel.: 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO



Borja Canibe Galina | Dibertsioa oholean

20 urteko gazte lezamarra Sondikara hurbiltzen da sarritan bere hobbia praktikatzera. "Lezaman ez dago kirol hau praktikatzeko toki aproposik; egokiena eta etxetik hurbilena Sondikan dago". Borja Argazki zuzendaritza ikasten dabil Euskal Herriko Zinema Eskolan (EHZE) eta bi urte daramatza oholaren gainean. "Ez dut inolako lehiaketan parte hartu. Serio hartuko banu ez litzateke hain dibertigarria izango. Kirol hau debalde praktikatzeko da, nire ustez".

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.atomikastudio.com – facebook.com/atomikastudio

Gabonetan **OPARIAK** zozketatuko
ditugu **Aikor!lagunen** artean



1000
baietz!

Egin zaitez
Aikor!lagun
Etxe bat, lagun bat

ZELAN?

POSTAZ:
Aresti, 2 behea - 48170 – Zamudio
E-POSTAZ:
aikorbxori@aikor.com helbidera
TELEFONOZ:
94 452 34 47 / 688 86 41 35
AHOZ:
Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

Batez ere monologista izateagatik zara ezaguna, baina Zamudiora bina-ka etorri zara, Iñaki Urrutiarekin batera. Ez da beste kide batekin lan egiten duzun lehenengo aldia; zelan moldatzen zara beste aktore batekin eszenatokian?

Elkarbizitza erraza da Iñakirekin. Berak ez ditu nire gauzak ukitzen, ez zaizkiolako gustatzen. Beraz, arazorik ez gure artean (kar, kar).

En bruto antzezlanean hauxe erakusten duzue: zelan egiten da esketx bat. Laburbilduz, zelan egiten da esketx bat?

Ez pentsa prozesu konplexua denik! Lagun bat eta botila bete ardo nahikoak dira esketx bat idazteko (kar, kar).

Zelan egiten duzue eguneroko egoerei buelta emateko eta, horien haririk, bakarrik sortzeko? Komikoek ikuspuntu berezi batetik ikusten duzue errealitatea?

Denetarik dago. Esate baterako, Luis Piedrahita eta holako komikoek badute ikuspuntu ezberdin bat, eta handik euren errealitateari begiratzen diote. Baina nik ez, nik ez dut ikuspuntu berezirik. Horren bila jarraituko dut.

Zein da umorearen sekretua? Zergatik da barregarria txistea?

Auskalo! Txiste batzuk oso onak dira eta ez dute ezer gehiagorik behar jendeak barre egiteko. Beste batzuk, aldiz, momentuaren edo kontalariaren arabera dira onak.

Estatu mailako zenbait eszenatokitik ibilia zara, eta leku bakoitzean publikoa ezberdina izango da. Nolakoak gara euskaldunok?

Euskaldunek ozenki egiten duzue barre, eta hori, komikoaren ikuspuntutik, benetan eskertzekoa da.

Zelan eta noiz hasi zinen bakarrik idazten eta antzeztan? Txistek kontatzen zenituen eskolan? Zer esan

"Txiste batzuk oso onak dira eta beste batzuk, aldiz, momentuaren edo kontalariaren arabera dira"

"Euskaldunek ozenki egiten duzue barre"

JJ VAQUERO | komikoa

Bakarriketak modan daude, eta horren haritik Zamudioko jaietan *En bruto* antzezlan antolatu zuten. Horren egileetako batekin, JJ Vaquerorekin, hitz egin dugu eta komikoak, Zamudioko saioan egin zuen moduan, esketx egiteko prozesu sortzailearen berri eman digu.

zizuten gurasoek komikoa izan nahi zenuela esan zenienean?

Bai, eskolan beti nenbilen txantxetan, baina ikasgelako mutilik barregarriena Kike Camisas nire laguna zen. Nire gurasoei dagokienez, eurek pozik hartu zuten ni komiko egitea. Fiskal egiten ez nintzen bitartean, gurasoak pozik. Izan ere, etxean ez zaizkigu fiskalak gustatzen (kar, kar). Nacho García komiko andaluziarra ezagutu nuenean erabaki nuen komikoa izatea. "Komikoa izaten saiatze hutsa izango da oso dibertigarria", pentsatu nuen.

Komikoak alfer hutsak zaretela esaten da, baina zu ez zara geldirik egoten. Izan ere irratian (*Protagonistas* saioan) eta telebistan (*El Hormiguero* saioan) egiten duzu lan eta, gainera,

"Lagun bat eta botila bete ardo nahikoak dira esketx bat idazteko"

antzezlanak taularatzen dituzu Estatu osoan zehar. Zelan moldatzen zara?

Tira, material pilo bat birziklatzen dut, hau da, telebistarako sortzen ditudan bakarriketa asko irratian edo antzezlanetan ere erabiltzen ditut askotan.

Irratia, telebista, antzerkia... Zein nahiago duzu?



IZAN

Boluntarioa izatea...

- beharizan sozialen kontzientzia hartzea eta horiek hobetzeko prozesuan inplikatura sentitzea da,
- bizitzari balioa ematea da, doakotasunaren eta besteekiko solidarietatearen bitartez,
- proiektu komun baten barruan gizartearekiko konpromisoa eta laguntza aktiboa eskaintzea da,
- pertsonengan, topaketan eta elkariketan sinestea da,
- gizarte zibil kritikoa, antolatua, barneratzailea eta aktiboa eraikitzearen aldeko apustua egitea da,
- gizarte eraldatzaren alde lan egitea da, pertsona guztien duintasuna, justizia soziala eta garapen iraunkorra helmugatzat hartuta,
- ekintza boluntarioaren ENBAXADORE izatea da, beste pertsona batzuk sentibilizatu eta inplikatuz.

baina, batez ere, jardunean ari denarentzat, boluntario izatea

IZATEKO modu bat da

www.bolunta.org

Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna
Abenduak 5



Zalantzarik gabe, irratia. Eta irratian aritzen den edozeinek gauza bera esango dizu. Irratia oso polita da, xarma handia dauka.

El Hormiguero saioan gidoilari egiten duzu lan eta batzuetan bakarriketak antzeztu ere egiten dituzu. Zer nahiago duzu, zuk zeuk bakardadean idatzi ala jendaurrean antzeztu?

Bakardadean? *El Hormiguero* saioan? Ezta pentsatu ere! Saio horretan zalaparta handia dago eta nire inguruan burutik sano ez dauden lagunak baino ez

daude. *El Hormiguero* saioan lan egitea tabernetan bakarriketak egitea bezain dibertigarria da.

Azken bolada honetan, telebistari esker ospetsuago egin zara. Nolako eragina du ospeak zure ikuskizunetan? Uste duzu publikoak barre egiteko joera duela, edo ospeak presioa sorrarazten dizu ikusleei huts ez egiteko?

Hauxe jarriko dut nire epitafioan: "Saiatu nintzen haiei huts ez egiten".

Nondik datoz zure izenaren JJ hizkiak? Zergatik erabiltzen dituzu inizialak eta ez izen osoa?

JJ hizkiek José Juan esan nahi dute. Hasiera batean, José Juan Vaquero zen nire izen artistikoa, baina kartel gehienetan José Juan baino ez zuten jartzen, eta azkenean amore eman nuen, eta JJ Vaquero utzi nuen.

Abizena, ez ogibidea

José Juan Vaquero Valladoliden jaio zen 1973an. Bere webgunean aitortzen duen moduan, Vaquero abizena da, ez ogibidea. Ez, Vaquero komikoa da eta azken bolada honetan, nahiko ezagun egin da, telebistan, *El Hormiguero* saioan agertzen delako. Hala ere, bakarriketak antzezteaz gain, Vaquero saio bereko gidoilaria ere bada. Eta hori guztia ez ezik, antzeztan ere idatzi eta taularatzen ditu Estatu osoan zehar: esketxak eta bakarriketak abiapuntutzat hartuta, besteak beste *La Biblia*, *increíble pero cierta*, *Es lo que hay*, *El Bueno*, *el Feo* y *el Malo* eta noski, Zamudion ikusgai izan genuen *En bruto* ikuskizunetan hartu du parte. Gainera, irratian ere egiten ditu kolaborazioak.

FRUTAK BARAZKIAK

Bertoko barazkiak eta sasoiak
Fruta **goxoa** eta kalitate handikoa
Jenero **freskoa** egunero

30 euroko bonoak opari

Gaur egun arte
4.500 euro banatuta

Gaztelumendi, 3 - behea
48195 Larrabetzu
94 455 89 19

lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultorioveterinariolezama.com

J.R. Galdona Madariaga
BI-515

Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak

servicio de urgencias 24h

94 455 56 19 Aretxalde, 21bis 48196 Lezama

"Pasioak mugitzen nau"

ANE URUBURU APODAKA | dantzaria

Bost urte zituela, negarrez ailegatu ohi zen etxera eskola ostean, patio-ordurik luzeena galdu zuelako. Izan ere, gurasoek balletean sartu zuten eta hura eskolan bertan ematen zen, bazkaltzeko eta ikasgelara itzultzeko izaten zuten tartean. Tratua egin zuten: gustatzen ez bazitzaion, hurrengo ikasturtean ez zuela balletera gehiago joan beharko. Baina, egia esateko, harrezkero inoiz ez dio utzi dantzan egiteari.



t: Itxaso Marina / a: Lara Rasines

Zenbat ordu ematen dituzu dantzan egunean?

Ahal ditudan guztiak. Lehen, eskolatik irten eta akademian sartzen nintzen arrastiko 5etatik gaueko 9ak arte. Gero, nagusitu egiten zara eta beste ardura batzuk etortzen dira: unibertsitatea, lana... eta korapilatsua da dantzari nahi beste denbora eskaintzea. Horregatik aprobeztatzen dut ahalik eta gehien aukera dagoenean.

Balleta oinarritzat harturik, beste estilo batzuk ere jorratzen dituzu; adibidez...

Jazz lirikoa eta funkya, flamenkoa, sevillanak, euskal dantzak, aretoko dantzak... Dantzan egitea gustatzen zaizunean, estilo bat eta bestea probatzen zoaz. Estilo guztiek aberasten zaituzte; are gehiago, zenbat eta estilo gehiago jakin, orduan eta hobeto egiten duzu dantzan. Dena dela, nik txikitatik mantendu dudana balleta izan da. Beatriz Pérezekin hasi nintzen eskolan, eta haren estudioan jarraitzen dut gaur egun, Sarrikon, eskola jasotzen. Balletak oinarria ematen dizu, gero beste dantza batzuk ondo egin ahal izateko: teknika, nola jarri...

Zein estilotan zaude erosoen?

Ballet neoklasikoan, beharbada. Modernoagoa da, ballet klasikoaren eta garaikidearen artekoa.

Zelako heziketa duzu dantza arloan?

Esan bezala, Beatrizekin nabil ikasten, eta Londreseko Royal Academy of Danceko zortzi gradu ditut. Baina tituluei baino gehiago etengabeko prestakuntzari ematen diot garrantzia, eta ikastaro asko egin ditut: Lázaro Carreño Kubako Balleteko dantzari ohiarekin; Igor Yebra eta María Jiménezekin, zeinak Victor Ullatearekin

hezi baitziren; Jacob Hernandez Biarritzeko Balleteko dantzariarekin; Jon Vallejo Dresdeko Balleteko dantzariarekin... Aukera ona da, haien esperientziak ezagutzeko eta haiengandik ikasteko.

Zein da zure dantzaririk kutunena?

Askok daude, baina bat aukeratu behar banu, Tamara Rojo aukeratu nuke. Londreseko Royal Balleteko dantzaria izan zen eta gaur egun English National Balleteko zuzendari artistikoa eta dantzari nagusia da. Txikitatik jarraitu dut haren ibilbidea, garai hartan bera zelako gailentzen zen dantzaria. Eskolako karpetak bere argazkiez forratzen nituen. Itziar Mendizabal, Royal Balleten Tamarak utzitako postuan dagoena, eta Lucía Lacarra ere ezin ditut ahaztu, euskaldunak izanik, gainera.

Zer da dantza?

Dantzan egitea ez da mugimenduak perfektuki egitea bakarrik. Dantza artea den heinean, publikoari sentimenduak eta transmititzea lortu behar da; osterantzean, gimnasta hutsak izango ginateke. Eta esan beharra dago, nahiz eta eszenatoki gainean gure aurpegiak ez islatu, esfortzu handia egiten dugula, e!

Zelako dantzaria zara?

Pasioak mugitzen nau. Eta beti, eskolan egon arren, eszenatoki gainean barenengo bezala egiten dut dantzan. Dan-

*"Zenbat eta estilo
gehiago jakin,
orduan eta hobeto
egiten duzu dantzan"*

*"Garrantzi handia
ematen diot etengabeko
prestakuntzari,
eta ikastaro asko
egin ditut"*

"Dantza artea den heinean, publikoari sentimenduak transmititzea lortu behar da"

tzatzen dudan guztietan saiatzen naiz disfrutatzen. Irakasleak hala egin behar dudala helarazi dit hasieratik, eta gustatuko litzaidake ni ere ikasleei hori helarazteko gauza izatea. Pilo bat gustatzen zait erakustaldiren batera etortzea eta bertan ikustea zer bihurtzen den eta non islatzen den eskolako lana.

Dantzariaren bizitza oso sakrifika-tua omen da.

Oso zaila da dantzari profesionala izatea. Esfortzu handia egin behar da, eta ordu asko entseguak egiten. Baina zorte ona dute, gehien gustatzen zaien hartan ematen dutelako eguna. Esango nuke dantzari erdiprofesionala izatea are zailagoa dela. Geure lanetik irten eta entseguetara, eskolara... joan behar izaten dugu. Asteburuetan izaten dira ikastaroak, erakustaldiak, lehiaketak... eta askotan albo batera utzi behar izaten ditugu familia eta lagunak. Gainera, profesionalak bagina bezala eskaintzen dugu beti ikuskizuna, askotan dirurik jaso ez arren.

Ez duzu inoiz profesionala izateko aukera aztertu?



Ez dakit, horrela gertatu da eta kito. Gaztetxoan nintzela, Gasteizko edo Donostiako kontserbatoriora joan beharra zegoen balleta ikastera, Bizkaian ez zegoelako aukerarik, eta oraindik ere ez dago. Nik aurrera jarraitu nuen neure ikasketekin... Aurten, Goi-mailako dantza ikastaroa ematen hasi dira Sarrikoko Musika Kontserbatorioan. Lau urte dira. Benetan gustatuko litzaidake hura egitea, baina alderdi asko hartu behar ditut kontuan; lana, besteak beste. Ez dakit, ikusiko dugu. Birtartean, dantzatzeke ditudan aukera guztiak aprobetxatu nahi ditut.

Ballet-txapinak beti prest

Ane Sondikakoa da eta 29 urte ditu. Musika Hezkuntza eta Hezkuntza Berezia ikasi ditu, eta Musika-terapia-ko masterra egin du. Ordezkapenak egiten dabil hezkuntza arloan, baina ahal duen bakoitzean jantzen ditu ballet-txapinak. Hainbat ikuskizun eta lehiaketatan hartu du parte, eta irabaziak ditu sariak han eta hemen. Esate baterako, *Zisnearen heriotza* oinarrituta dagoen eta espresuki berarentzat egokitutako lana eraman zuen Haroko Dantza Lehiaketa Nazionalera, eta lehen saria eskuratu zuen bertan. Bikoteka eta taldeka egindako ikuskizunek ere sariak lortu dituzte; esaterako *Another love*-k eta *Queen*-ek.

Olaeta Ballet Elkarteak kidea da eta, dantza eskola emateaz gainera, aretoko dantzen irakasle titulua ere badu. Orain dela hiru urte aretoko dantza lehiaketarekin ausartu zen eta iaz txapelketetan parte hartzen hasi zen. "A maila da altuena, eta ni B mailan sartu nintzen zuzenean, bikotea aurretik ere kategoria horretan lehiatzen zelako. Cha cha chak, sambak... ez dute zerikusirik orain arte egin dudanarekin, eta apur bat arraro sentitzen naiz, baina uste dut iaz ondo egin genuela". Lehiaketa-dantza modalitate berria izango da datozen olinpiadetakarako. Batek daki inoiz ez ote dugun Ane bertan ikusiko; beharbada, bai.



TXORIERRI S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Lanbide Heziketa eta Elgaren Ikasketarako Ikastetxea

Urtzagatze Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 00 | info@txorierri.net
48160 - DEFO | Fax: 94 403 40 01 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

ATEAK ZABALTZEKO EGUNAK
 Maiatzaren 5ean eta 28an (18:30etatik aurrera)

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO BATXILERGOAK
LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOIA

- Mekanizazio teknikaria
Erdi mailako zikloa (2 ordu)
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- Produzioaren Programazio goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen-Heziketa eta Kontrolleko goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- Telekomunikazio- eta Informatika-Sistemetako goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Salmenten kudeaketako eta Merkataritza Arloetako goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

Gure tailerrak eta laborategiak ezagutzera etorri

Abenduak 1, Hiesaren Aurkako Nazioarteko Eguna


Txorierriko Mankomunitateak, Hiesaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, 4.000 diptiko banatuko ditu osasun-zen-troetan, ikastetxeetan, liburutegietan eta gaztelekuetan. Diptiko horietan informazio erabilgarria jasoko da, Giza Immu-noeskasiaren Birusari (GIB) buruzko mitokak eta egiak ezagutzeko. Gainera, liburuxka berean GIBa atzemateko test azkar-rrari buruzko informazioa emango da, bai eta testa egiten duten Bizkaiko far-mazien helbidea eta telefono-zenbakia ere.

Hiesari buruzko EGIAK

- Semenak eta baginako jarioek GIB kontzentrazio altua dute. Zauri irekirik izanez gero, kutsatzeko arriskua dago.
- Izerdia EZ da GIBa transmititzeko bidea.
- GIBa hil egiten da airea ukitzen due-nean.
- Listua EZ da birusa transmititzen duen jarioetako bat.
- Guztiok gara ahulak GIBaren aurre-an, neska zein mutila izan.
- Honako hauek dira kutsatzeko bide-ak: kondoirik gabeko sexu-harremanak, haurdunaldia (amarengandik seme-ala-barengana), erditzea edo umeari titia ematea eta odolaren bitartez.
- Babesik gabe (preserbatiborik gabe) eginez gero, beti dago kutsatzeko arris-kua.
- GIBaren birusak ezin du giza gorpu-tzetik kanpo bizirik iraun.
- Ezinezkoa da birusa transmititzea ez-tularen, doministikuen edo azalaren bidez.
- GIBak bizirik dagoen pertsona baten gorputzean baino ez du bizirik irauten. Hildakoaren arropan edo objektuetan ere ezin du bizirik iraun.

Preserbatiboak banatzea

Esku-hartze Komunitarioko Zerbitzuak 1.000 preserbatibo banatuko ditu gazteen artean, sexuaren bidez transmi-titzen diren gaixotasunak prebenitzeko eta sexu-harremanetan preserbatiboak



erabiltzearen garrantziaz kontzientzia-tzeko.

EXPOHIESA erakusketa

Aurten, Hiesaren inguruan azken 30 urteotan egin diren kanpainen historiari buruzko erakusketa egongo da ikusgai Lezamako Gaztelekuan eta Zamudioko

Gazte Estazioan, azaroaren 30etik aben-duaren 7ra arte.

Lazo gorria

Egun horren kariatara, Txorierriko Udal guztiek lazo gorria jarriko dute eu-ren balkoi nagusian, Hiesaren Aurkako Nazioarteko Eguna ikusgai egiteko.

EUSKARAK
365
EGUN

EUSKARAREN EGUNA TXORIERRIN 2015

Aurten Zamudion



AZAROAK 27, OSTIRALA



KANTALDIA

Erramun Martikorena eta Amaren alabak

Elizan / 20:00



AZAROAK 28, LARUNBATA



"TREN GELTOKIA" IKUSKIZUNA

Umeentzat

Frontoian / 12:00

OLGETAN PARKEAN

Ume eta gurasoentzako jolasak



Frontoian / 11:00



TABERNA IBILTARIA

Frontoitik hasita, kalez kale
20:15etik aurrera

BERTSO SAIOA: Etxahun Lekue,
Beñat Ugartetxea, Iratxe Ibarra
eta Miren Amuriza
Gai jartzailea: Iñaki Beitia
Frontoian / 19:00



AZAROAK 29, IGANDEA

DANTZA ETA MUSIKA

Zamudioko taldeak abesten, dantzari eta musika jotzen kalez kale
Kultur Etxetik hasita (Eskola zaharretatik) / 12:00etatik aurrera



ABENDUAK 1, ASTEARTEA FUTBOLA OINARRITIK EUSKARAZ

Futbol elkarteak

Errekonozimendu ekitaldia

Politeknika Txorierri / 18:00

IKASTETXEEN EGITARAUA

AZAROAK 30, ASTELEHENA

"MONDA ETA LIRONDA" PAILAZOAK

4-5-6 urtekoentzat

9:30 / 11:00



ABENDUAK 1, ASTEARTEA

ASIER KIDAM MAGOA

10-11 urtekoentzat

9:30 / 11:00



ABENDUAK 2, ASTEAZKENA

"HOR KONPON MARIANTON" ANTZEZLANA

7-8-9 urtekoentzat

9:30 / 11:00



ABENDUAK 3, OSTEGUNA

ABENDUAK 4, OSTIRALA

HITZALDIA: "Sare sozialen garrantzia eta arriskuak"

Hizlaria: Jon Gomez

16-18 urtekoentzat

Abenduak 3: 9:30 / 11:30

Abenduak 4: 12:30





“Peloteak izug aberastasuna ek

JUAN MARI DAÑOBEITIA | pelotari ohia

Lezamako pelotalekua Juan Mariren etxearen modukoa da. Eta noski, bertan gelditu gara beragaz alkarrizketea egiteko. Harmailetan jarri bezain laster, oroitzapenak jatorkoz Juan Mariri burura. “Betidanik jokatu dot pelotan. Txikitan, ez egoan besterik herrian, eta orduak eta orduak emoten genduzan frontoian. Lehen ez eukan estalgirik, baina bardin euskun. Gainera, herrian zaletasun itzela egoan eta Txorierritik edo Galdakaotik etorten zan jente pilo bat Lezamako Eskualde Txapelketea ikustera. Eta jokatzear gain, laguntasuna be emoten genduan; esate baterako, frontoia garbitzeko”, gogoratu dau Juan Marik.

Halanda be, pelotearen inguruko zaletuek arazoak euki ebezan 1960ko hamarkadan. “Garai hatan, ETA erakun-

Juan Mari Dañobeitia Lezamako pelotearen ikur nagusietako bat da. Garai baten, profesional mailan aritu zan, baina jokatzeari itxi eutsanean herriko pelota alkartean sartu zan, taldeari bultzada bat emoteko. Hasikera baten entrenatzaile jardun eban, eta gaur egun, batzarkide. Juan Marik bizitza osoa emon dau herriaren eta pelotearen alde behar egiten.

dea sortu barria zan, eta haren aldeko pintadak egin ebezan frontoiko frontisean. Ondorioz, agintari politikoak euskal kulturearen inguruan egoana hasi ziran erasoten: pelotea, dantzak... Errepresio itzela egon zan, eta hori dala-eta, pelota taldea desegin zan. Apur bat geroago, ostera, 1973an, pelotazale eta jokalaria ba-

tzuk barriro ipini genduan martxan taldea”.

Garai hatan Juan Mari zaletu mailan jokutzen eban, eta urte batzuk geroago, 1976an, profesional izateko aukerea heldu jakon. Ez da marka makala, izan be, Lezaman bospasei pelotari profesional baino ez dira egon historian. Guztira, 11



arrizko arri deust"

*"Hirugarren mailako
pelotaria izan nintzan,
baina oso egonkorra eta
langilea, eta maila bera
emoten neban beti"*

*Pelotazaleek omenaldi
batzuk egin deusiez
Juan Mariri; azkena,
aurten, Lezaman*

urte emon eban onenen kontra jokatzeko. "Aurrelari moduan hasi nintzan, baina profesional mailan atzelari aritu nintzan. Hirugarren mailako pelotaria izan nintzan, baina oso egonkorra eta langilea, eta maila berbera emoten neban beti". Profesional berbea aitatu dogu, baina Juan Mari, pelotaria izateaz gain, beste leku baten egiten eban behar. "Lehen pelotariok geure gastuetarako baino ez genduan ateraten. Beraz, tailer baten egiten neban behar, lehenik eta behin Lezaman bertan, eta gero, Larrondon. Batzuetan apustuak egiten ebezanez ordain-sari txiki batzuk emoten euskuezan, baina besterik ez!".

Garai hatako oroitzapenak oso onak dira. "Oro har, guztiak ebiltzan pozik nigan: enpresak, zaletuak, arerioak...". Eta ziur asko horrexegaitik egin eutsien omenaldia pelotan jokatzeari itxi eutsan egunean, 1987ko uztailaren 31n. "Oso polita izan zan. Mutrikun egin zan pelota enpresa bertakoa zalako. Dana bukatu zanean, era natural baten, publikoa hasi zan *Agur jaunak* abesten. Oso hunkigarria izan zan. Gaur egun be hunkitu egiten naz, hori burura etorten jatan baktxean. Urte berean, jaietan, beste omenaldi bat egin euskuen herrian. Omenaldia be oso polita izan zan: lezamarrak, Udala, Federazioak.... Guztiak egozan frontoian eta gero herri afaria egin zan, dantzariak eta txistulariak lagunduta".

Azkenaurreko omenaldia

Hareek ez ziran izan omenaldi bakarrik. Juan Mari herrian estimaten daben seinale, bai horixe! Lezamako Pelota Alkarteak aurten bertan azken omenaldia egin deutso. Edo, hobeto esanda, azkenaurrekoa. "Erabat ustekabea harrapau ninduan. Mundua gainean jauzi jatan (kar, kar). Udalek, klubekoek eta Bizkaiko Federazioak antolatu eben otsailean, Lezamako txapelketearen finalean. Eta nigaz ibili ziran gazte batzuk etorri ziran. Nik inoz baino jente gehiago ikusi neban frontoian, eta arraroa izan zan umeak pelotari jantzita etorri ziralako. Nire ikasleak izandakoek agurtu ninduen, baina ez eusten tutik be esan. Gazteek pasealekua egin eta txapela oparitu eusten; Fe-

Konekta zaitez gurekin!

aikor!
Lezamako Pelota Alkartea



Facebook:
aikor.txorierrikoaldizkaria



Twitter:
@Aikortxorierr



Webgunea:
www.aikor.com





Zinegotzia zala futbito-aretoa
eta frontoia egin ziran

derazinoek, nire argazkia eban koadru bat; eta alkartekoek, erloju dotore bat. Oso polita izan zan, batez be kanpoan bi-zi ziran gazte batzuk nora eta nire omenaldira etorri ziralako. Batzukaz eztabaidak euki nebazan eta beste batzukaz hartu-emon hobeia euki neban, baina guztiak etorri ziran. Oso pozgarria izan zan”.

Herriko pelotazaleek aintzat hartu eben Juan Mari alkartean urteetan egin-dako lana. “1991ean barriro sartu nintzan alkartean. Garai hatan taldea ez egoan ondo, jentea apur bat nekatuta egoalako. Entrenatzaile-ikastaroak egin nebazan Euskal Herriko Unibersidadean, eta izugarri ikasi genduan bertan. Nigaz batera Iker Bilbao sartu zan alkartean, eta baita Jaime Uriarte, azken 24 urtean presidentea izan dana, David López eta Honorio Vicente. Guztiek egin edo egiten dabe lan txukuna, batez be Jaimek. Lezama asko zor deuto Jaimeri. Entrenatzaile eta batzarkide barriakaz batera, hainbat jokalaria gazte sartu ziran alkartean, eta guztion artean talde polit bat osatu genduan”.

Eta horrek laster emon ebazan fruituak: 1996an herrien arteko txapelketearen finalera heldu ziran, eta 1997an eta 1999an irabazi egin eben txapelketea. “Garai baten 65 ikasle euki genduazan, eta hareek izugarritzko zaletasuna eben. Urrezko garaia izan zan. Entrenatzailea

“Bakotxak badau bere herria eta gauza bera pentsauko dau, baina nik uste dot Lezama dala herririk politena”

“Zinegotzia izan nintzan Udalean herriaren eta, batez be, gazteen aldeko zerbait egin gura nebalako”

nintzan, baina, egia esan, animatzaile ari-zen nintzan. Umeei akatsak esaten geuntsezan, zuzentzen genduzan, baina batez be animaten genduzan jokatzera jarraitzera”. Juan Mari 15 urte emon eban entrenatzaile eskolan, baina, zoritarrez, osasun arazoak zirala-eta, itxi behar izan eban. Apur bat geroago, alkartearen batzarrean sartu zan, eta gaur egun bertan jarraitzen dau.

Bai, Juan Mari presente dago eskolearen egunerokotasunean eta jakin badaki zein dan gaur egungo egoera. “Talde polit bat dago: entrenatzaileak, ikasleak eta gurasoak. Guztion artean oso emaitza onak lortu genduzan igaz, baina nire kezka hau da: talde txikia da, ume gitxi dagoz. Ahaleginak egiten doguz ahalik eta ume gehien erakarteko, baina batzuetan ez da bape erraza. Eta esan leiteke pelotaria izatea Lezaman erraza dala, Lezama-koa puntako kluba dalako eta herrian zaletasun handia dagoalako. Baina umeak harrapau behar dozuz, zer egingo dogu ume barik, ba? Gaur egungo haurrak oso lanpetuta dagoz, hainbat gauza egiten dabez egunean zehar, esate baterako, futbola”.

Lezamar petoa

Juan Mari izugarri egin dau behar (eta oraindino jarraitzen dau beharrean) pelotaren alde, baina peloteak be hainbat gauza emon deutoz lezamarrari, eta horregaitik berba politik baino ez dauz. “Peloteak aberastasun itzela ekarri deust. Kirolak irakatsi deust bizimodu osasuntsu bat eroaten, bidaiatzeko aukerea emon deust, lagunak egin dodaz, gauzak baloraten ikasi dot...”.

Juan Mari gaz Lezamatik ibiltea ez da bape erraza. Jente guztiak ezagutzen dau


Ez da medikua,
baina gure osasuna
zaintzen du.



Ez da ingeniaria,
baina gure paisaia
zaintzen du.



Ez da irakaslea,
baina gure kultura
zaintzen du.



Hori da geurea

Horrelakoak dira gure ekoizleak
Profesional handiak, guretzat elikagai
osasungarri, samur eta naturalak
ekoizteaz gain, gure osasuna, paisaia
eta kultura zaintzen dutenak.

Horregatik, elikagai hauek
kontsumitzea
ona da denontzat.

Goi mailako kalitatea eta jatorri
deitura duten elikagaiak



hazi

LANDIA, ITASARITZA ETA ELIZABARRIEN BULTZOTERRA
DESARROLLO RURAL, LITORAL Y ALIMENTARIO



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA LEHAKORTASUN BAZA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD





Goiko aldean, ezker aldean: Lezamako Pelota Alkartea, 2006an. Argazkian pelotariak, entrenatzaileak eta batzarkideak agertzen dira. Juan Mari erdian dago, gorritz jantzita.
Beheko aldean, ezker aldean: Juan Mari Dañobeitia, 1962. urtean, pelotan olgetan.
Beheko aldean, eskumaldean: Juan Mari (eskuman), pozik, garaipena ospatzen dabil Javier Bilbao pelotariagaz batera. Argazkia 1969. urtekoa da.



eta berak auzokide guztiak agurtzen dauz. Ez da harritzekoa, Lezama herri txikia dalako eta pelotari ohiak bizitza osoa han bertan emon dauelako. Juan Mari Dañobeitia 1944ko ekainaren 24an jaio zan Estarta baserrian, Udaletxearen atzean. Eta geroago handik 800 metrora ezkondu zan, Larrakoetxera. Gaur egun bertan bizi da emazteagaz, eta han jaio eta hazi ziran euren seme biak. "Bakotxa bere herrian bizi da, eta gauza bera pentsauko dau, baina nik uste dot Lezama dala herririk politena", dino Juan Mari, harro-harro.

Agian horrexegaitik Udaleko zinegotzia izan zan 1991tik 1995era bitartean. "Nik EAJko kidea izan nintzan eta alderdiak hauteskundeetara aurkeztea eskatzen eustan askotan. Azkenean onartu egin neban, herriaren eta, batez be, gazteen aldeko zerbait egin gura nebalako. Horren haritik, Lezaman egoan kezka bat jaso genduan. Izan be, lehen herrian ez egoan areto estalgirik umeak bertan olgetako. Eta eskolearen alboan frontoi estalgia eta futbito aretoa egin genduzan. Udalean talde polita osatu genduan. Oso pozik nago Udalean egindako beharraz".

Pelotaz berbetan

Juan Mari oso kirolzalea da, baina batez be pelotea gustetan jako, jakina. Bere esanetan, peloteak aldaketa handia izan dau azkeneko urteotan. "Lehen, pelotariok geure kabuz entrenatzen genduan, baina orain entrenatzaileak dabez, eta hareek psikologiaz, heziketa fisikoaz, elikaduraz... danetarik dakie. Gainera, telebistea sartu da, eta horrek ikuskizuna dakar, eta horrek eragina euki dau jokoan. Gaur egun, askoz arinagoa da. Pelotariak atleta hobeak dira eta teknikoki be izugarrizko heziketa dabe. Esate baterako, airez jokatu behar da, lehen egiten ez zana, eta hori umei irakatsi behar deutsezu, bestela, jai daukie. Materiala be arinagoa da eta horrek laguntzen dau jokoaz azkarrago egiten".

Bere eritziz, profesionala izatea errazagoa da gaur egun, "baina maila emoten ez dabenak lehen baino askoz azkarrago doaz pikutara". "Pelotea oso kirol gogorra da, banakakoa eta bakar-

"Pelotea kirol gogorra da, banakakoa eta bakartia dalako: zu, pelota, hormea eta aurkaria, besterik ez"

tia dalako: zu, pelotea, hormea eta aurkaria, besterik ez. Akatsak egiten badozuz, ez dago hareek ezkutatzeko erarik. Profesionala izateko ordu asko jokatu eta entrenau egin behar dira, umeek egiten daben baino gehiago. Baina zer egingo deutzazu? Umeak baino ez dira..."

Juan Mari profesionala izan zan 1976tik 1987ra bitartean, eta pelotari asko eta asko ikusi dauz. "Gaztetan, Deportivo-ra, Bilbora joaten nintzan osaba bategaz, eta han pelotariak onenak zuzenean ikusteko aukerea genduan. Garai hatako puntako pelotariak honeek ziran: Barberito,



Goiko aldean: Juan Mari (eskuman) beste garaipen bat ospatzen dabil, 1980. urtean, Sabino Bilbao pelotariagaz batera.

Eskumaldean: Juan Mari (erdian eta kamisa urdin bat jantzita) kopa bat jasotzen, Lezamako alkartearen pelotariak herrien arteko txapelketea irabazi ebanean, 1997an. Bere alboan, Luis Ramón Álvarez, txapela jantzita, garai hatan Lezamako alkatea izan zana.



García Ariño eta Ogeta. Ogeta oso ikusgarria zan eta jente asko joaten zan frontoira bera ikustera. Baina, nire ustez, onena Retegi II.a izan zan, zalantza barik”.

Gaur egungo pelotearen gainean be egin dogu berba Juan Marigaz. Horren inguruan lezamarrak ez dau zalantzarik: “Aimar Olaizola eta Juan Martínez de Irujo dira onenak”. Pelotazale gehienak bat datoz horregaz, eta guztiek aukeratzen dabe horreetako bat. Juan Marik Juanen alde egiten dau. “Pelotari biak hasi ziran Lezamako Eskualde Txapelketan. Jenteak batzuetan uste dau Juan harroputza dala, baina frontoitik kanpo oso mutil jatorra da eta beti egon da guri laguntzeko prest. Aimar hotzagoa da. Bizkai mailan, Pablito eta Urrutikoetxea doguz. Azken hori ona da, eta asko ikasi dau, baina ez dauka Aimarrek edo Juanek daukien maila. Gaur egun Nafarroako pelotariak dira onenak, baina laster Gipuzkoatik datozenak ibiliko dira jaun eta jaube. Bizkaian, tamalez, etorkizun gutxi ikusten dot nik”.

Atsedetik onena, zure bigarren etxebizitzan ere bai

Delux lo egin, zoriontsu esnatu.

SUTE DELUX
MARKA ESKLUSIBOAK, ATSEDENERAKO

SUTE DELUX .com

DERIO | **LEIOA**
Dirako Seminare 043 645 147 | La Avanzada, 80 043 316 616

"Urtean zehar egiten diran ekintzez eta programez aparte, Euskerearen Eguna aprobetxatzen dogu, alde batetik, geure hizkuntzearen balio ludikoa azpimarratzeko eta, bestetik, txorieritar euskaltzale guztiak batuko dituan gune bat sortzeko. Horretarako, ahalik eta adin tarte zabalenera heltzea hartzen dogu beti kontuan", esan deusku Laura Martinez euskera teknikariak. "Betiere txorieritarren parte hartzea sustatu gura dogu, euskerea kalean erabiltea alegia".

Egitarau oparoa antolatu da aitatutako helburuak beteteko. "Oso harrera ona daukien eta jente asko erakarten dabenekintzak mantentzen doguz urterik urte, baina beti saiatzen gara gauza barriak sartzen". Halan, Erramun Martikorenak eta Amaren Alabak taldeak kantaldia eskiniko dabe bariku arrastian, eleizan, eta zapatu goizean familian gozatzeko ekintzak egongo dira frontoian. "Altxorren Bila izeneko ekintza egingo da eta umeek aukerea eukiko dabe moztortzeko, margotzeko, hainbat jolas egiteko... Ostean, Zirika Zirkus pailazoaren azken ikuskizuna egongo da".

Zapatu arrastirako, gurean klasiko bihurtu dan saioa prestau da. "Urtero 200 personatik gora hurbiltzen dira bertso saioa entzuteri eta ondoren Taberna Ibiltaria taldeagaz kalez kale abestera. Horregaitik, aurten be, aurreko urteetako erantzun berbera izatea espero dogu". Zamudioko taldeek domeka goizean hartuko dabe protagonismoa. "Ekintzearen helburua herriko kaleak musikaz eta dan-

Zamudio, txorieritar euskaltzaleen gunea

Euskerearen Eguna eta hari lotutako ekintza nagusiak Zamudion egingo dira aurten, azaroaren 27tik abenduaren 4ra bitartean. Egitaraua Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatu dau, Lagatzu bertako euskera alkartearen laguntasunagaz. Adin eta gustu guztientzako ekitaldiak egongo dira: antzerkiak, kantaldiak eta bertso-saioa, besteak beste.

"Baten batzuek euskerea urteko egun guztietan erabili behar dala barneratuko balebe, gu pozik"

tzaz betetea da, eta jenteak bertan parte hartzea. Kultura Etxean batuko gara guztiak, eta gero ibilpide bat egingo dau talde bakotzak".

Bestalde, eskoletako umei eta gazte-txoei zuzendutako ikuskizunak egongo

dira astean zehar, eta Jon Gomez kazetariak gizarte sareen garrantzia eta arriskuak azalduko deusez institutuko ikasleei. Bukatzeko, "Futbola Oinarritik Euskaraz" egitasmoa jente-aurrean hartuko da aintzat, eta ekitaldian Txorierriko futbol taldeen arteko partidua jokatu dira. "Sei herrietako euskaltzaleak Zamudion batzea gurako geunke, eta antolatu doguzan ekintzetan parte hartzea eta disfrutatzea. Eta kontzientzia biztu be bai: baten batzuek euskerea asteburu horretan ez eze, urteko beste egunetan be erabili behar dala barneratuko balebe, gu pozik".

Oharra:

Egitarau osoa, 16. orrialdean dago





Egitarau nagusiaz gainera, hainbat ekintza egongo dira gainerako herrietan be. Esate baterako, Zorritzetan Lezamako euskera alkarteak antzezlan bi antolatu ditu abendurako. Lehenengo hilaren 1ean, arrastiko 6etan izango da Udaletxeko Kultura Aretoa. Kontakatillu txotxongilo taldeak *Katillukadak* lana eskiniko dau bertan. Bigarrena Zentimorik Gabe taldearen eskutik eskiniko da hilaren 3an, Euskararen Egunean bertan. Antzerki taldeak *Putinen guardasola* lana aurkeztuko dau arrastiko 7etan, Kurtzeko ermitan.

Derioko Udal euskaltegikoak *Ama* filmea ikustera joango dira Gurea aretora, abenduaren 2an. Emonaldi bi egongo dira, bata goizeko 9:30ean, eta bestea arrastiko 6:30ean. Sarrerak euro

Gainontzeko herrietan



Kontakatillu txotxongilo taldeak *Katillukadak* lana eskiniko dau

bi balioko dau eta ekintzea euskaltegitik kanpoko laguntzat be egongo da zabalik. Derioko Udalak be ipuin kontalaria antolatu dau abenduaren 3rako. Hori arratsaldeko 6etan izango da Kultur Birikan. Ostean, 19:00etan, euskerearen sua biztuko dabe Tximintx euskera alkarteko kideek.

Trokolo Teatroak *Burutik jota* umeentzako ikuskizuna eroango dau abenduaren 5ean Zamudion. Ekintzea Lagatzu hango euskera alkarteak antolatu dau eta eguerdiko 12etan eskiniko da Zamudiotorren. Azkenik, Larrabetzun txotxongilo ikuskizun bat egongo da abenduaren

3an, Txinpasmendi hango guraso alkartearen eskutik. Saioa Aitzolek eskiniko dau eta arrastiko 5:30ean izango da Anguleri kultur etxean. Aitzol 16 urteko barakaldarra da eta aurtengoa Larrabetzun aurkeztan dauan bosgarren ikuskina izango da. Horren ostean, "365 egunak dira Euskerearen Eguna" ekitaldia egingo dabe Arrekikili Larrabetzuko euskera alkartekoek. Lekua oraindik zehaztuta ez badago be, aurreratu deuskue arrastiko 7etan izango dala, eta ospakizun herrikoia izango dala. Beraz, lagun guztiak dagoz konbidatuta.

**TABERNA
GAZTEDEI**

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141
48196 Lezama
944 554 422

gazteditaberna@gmail.com

**HARAGITEGIA
URDAXITEGIA
IMAZ**



MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75

DERIO

Eskerrik asko
etortzeagaitik

BIZKARGI
TABERNA ETA JAKARIA

Urkiola, 6 DERIO

944541655

**ELORRIETA
INSTALACIONES**

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 beheas Derio 48160
94 454 03 86

639 57 98 48 - 639 58 25 47

**MARMOLGINTZA
GOYO**
SURKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERRIAK



Ugaideguren 1 ind, 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

“Herrira itzultzea azken aukera da”

t/a: Itxaso Marina

Zerk ekarri zintuen Euskal Herrira?

Ikasketek. Nekazaritza ingeniaritza egin nuen Tunisian eta ikasketak 2008. urtean bukatu nituen. Urte horretan, beka bat lortu nuen Zaragozako Agronomia-Institutu Mediterraneoan landareen hobekuntza genetikoari buruzko masterra egiteko. Masterraren lehen urtea bertan egin nuen, baina bigarren urtean Lleidara, IRTA ikerkuntza instituturara, joan nintzen proiektua jorratzera. Gari gogorren barietateak genetikoki zelan hobetu aztertzen ibili nintzen proiektuan. Ondoren, 2010. urtean, plaza lortu nuen Euskal Herrian genetika molekularren inguruko doktoradutza egiteko.

Non egin duzu doktoradutza?

Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkean, CIC Biogune Institutuan hain zuzen ere. Institutuan lau urte eman ditut: lehenengo biak doktoradutza egiten; eta beste biak praktikaldiko kontra-

“Animalien gaixotasun neurodegeneratiboei zelan aurre egin ikertu dut”

tuarekin. Animalien gaixotasun neurodegeneratiboei zelan aurre egin ikertzen ibili naiz, gero gaixotasun horiek animalietatik pertsonengana pasatzea ekiditeko. Ardiekin egin dut lan.

Aizu, Cum laude doktoratu zarela esan digute.

Bai, oso pozik nago. Askok ikasi nuen.

Kontratua agortu zaizun arren, harremanetan jarraitzen duzu CIC Biogune Institutuarekin. Zertan zabilta?

Oraindik lana daukat egiteko. Ikerlarietako zientzia-artikuluak argitaratu behar ditugu eta momentu honetan artikulu bat idazten nabil. Eta buruan badut beste artikulu baten eskema... Bitartean, lan bila ere banabil, Estatuan zein Frantzian. Ikerkuntzan aritzea gustatuko litzaidake.

CHAFIK HARRATHI | Genetika molekularrean doktorea

Chafik-ek 33 urte ditu eta Tunisiakoa da. *Cum laude* doktoratu da Genetika molekularrean, eta ikasketa-espediente zabala edukitzeaz gainera, lau hizkuntza hitz egiten ditu: arabiarra, frantsesa, ingelesa eta gaztelania. Zamudion finkatutako gaztea aukera baten bila dabil.



Ikerkuntzak oso eremu zabala hartzen du, eta niri ez litzaidake inportatuko esparru batean edo bestean lan egitea.

Eta zelan ikusten duzu?

Zaila. Alde batetik, lan askotarako herritartasuna eskatzen didatelako; eta bestetik, gero eta murrizketa handiagoak daudelako ikerkuntza arloan. CIC Biogunen, esate baterako, 10 lagun geunden orain dela hiru urte; eta laster bost per-

tsona baino ez dira geldituko lantaldean. Ikerkuntzak aurrera ateratzeko baliabiderik ez dago, eta proiektuak bertan behera utzi behar dira. Tamalgarria da, ezin dut ulertu... Neska batzuk ezagutzen ditut kanpora lan egitera joan direnak; Estatu Batuetara eta Kanadara hain zuzen ere. Herri horietan bai egiten dutela ikerkuntzaren aldeko apustu handia. Dena dela, ikerkuntzan ezin bada, ni prest nago edo-

*“Proiektuak bertan
behera utzi behar dira,
finantziaziarik
eza dela-eta.
Tamalgarria da”*

zein lanetan aritzeko, oinarritzko beharri-
zanak bete ahal izateko.

Zelan betetzen dituzu beharrian horiek orain?

Praktikaldiko kontratua amaitu zitzai-
danean, zortzi hilabeteko langabezia
eduki nuen, eta hura uztailean agortu zi-
tzaidan. Familiaren dirutik bizi naiz mo-
mentu honetan.

Ikasketengatik Estatuan egoteko baimena martxoan agortuko zaizu. Zelan ikusten duzu etorkizuna?

Bai, martxorako zerbait topatu behar-
ko dut; osterantzean, Tunisiara itzuli be-
har. Egia esan, nik ez dut hemendik alde
egin nahi. Bost urte daramatzat hemen
eta lagun asko ditut, hemengo bizimo-
dura egokitu naiz... Beste erremediorik
ez balego, itzuli beharko nintzateke, bai-
na azken aukera izango litzateke. Tu-
nisian egoera oraindik ez dagoelako oso
ondo. Iraultzaren ondoren, herriak egon-
kortu behar du eta horrek denbora eska-
tzen du.

Zelan izango litzateke zure etorki- zuna Tunisian?

Tituluak baliozkotu beharko nituzke,
noski, baina, curriculum ona eduki arren,
badakit kostatuko litzaidakeela lana to-
patzea. Ez dut uste ikerkuntzan aritzeko
aukera handirik edukiko nukeenik, ber-
tan ere ikerkuntzari behar besteko ga-
rrantzirik ematen ez zaiolako. Ziur asko,
oposaketak egingo nituzke, ea unibertsita-
tean-eta irakasle moduan lana topa-
tzen dudan.

CIC Bioguneko lankideekin



Jasminen iraultza

Aurten, Tunisiako Elkarrizketa Na-
zionalerako Laukoteei eman diete Ba-
kearen Nobel saria. “Gauza ona izan da,
Tunisia iraultzatik ondoen atera den
herri arabiarra delako, baina hori mun-
duari begira da. Hango egoera orain-
dik ez da ona, herritarrek ez dute
egonkortasun ekonomikorik eta
erronka handiei egin behar zaie aurre”.

Chafik Euskal Herrian harrapatu
zuen Jasminen iraultzak, 2010. urteko
abenduan. Ben Ali Tunisiako tiranoak
hilabete bat beranduago egin zuen
ihes herritik, protestak geldiarazi ezi-
nik. “Herriak behar zuen matxinada.
Ustelkeria handia zegoen Gobernuan,
lapur asko, kutunkeria... Herritarrak,
berriak, egoera txarrean zeuden, langa-
bezian, aukerarik gabe... Horrela urte
batzuk eman ahal dira, baina gero ezin
duzu gehiago jasan eta azkenean
lehertu egiten zara. Dena dela, herria
egonkortzea ez da goizetik gauera egi-
ten den gauza. Nire ustez, oraindik ere
urte batzuk behar dira horretarako”.

Chafik-ek jakin badaki Tunisiak
beste herri arabiar batzuek baino erra-
zago eduki duela demokratizazioarako
bidea. “Siria, Irak... Gogorra eta tristea
da, benetan, Europara ailegatu nahi

*“Matxinada
behar zuen
herriak”*

duten immigranteen egoera, hildako-
ak, umeak... Europak badu erruaren
zati bat, nahi izanez gero arazori erro-
tik heldu ahal izango liokeelako”. Zo-
ritzarrez, herrialdeen arteko harrema-
nak korapilatsuak dira, interesak dau-
de, ekonomikoak, politikoak... “Eta es-
ku asko, herriak egonkortzea nahi ez
dutenak”. Jasaleak, beti herritarrak.

Aipatu digu berak ez duela inoiz
arrazakeria pairatu. “Oso pertsona za-
bala naiz eta ez dut arazorik lagun be-
rriak egiteko”. Hala ere, uler dezake ba-
tzuk mesfidatiak izatea. Lehen egon
zitezkeen aurreiritziei erradikalismoa
gehitu behar diegu orain, Pariseko
atentatua duela aste batzuk... “Baina
horiek musulman faltsuak dira, Isla-
mek ez duelako hiltzeko, lapurtzeko...
agintzen. Erlizioz moztortzen da, bai-
na atzean badaude ekonomia eta
botere arloetako interesak”.



"Kostatu zait nobela idaztea, gaia mingarria delako"

TOTI MARTINEZ DE LEZEA | idazlea

Larrabetzuko idazleak beldurrari buruz dihardu *Isilpean gordea* bere azken nobelan. Pentsatzeko, esateko, iritzia emateko... beldurrari buruz. "Beldurra oso presente egon da gure guraso eta aitita-amamen bizitzetan. Gerra gabe, "hari" eta "haiei" buruz hitz egin duen belaunaldi bat izan da. Ez zen izenik esaten".

t: Itxaso Marina / a: Aritz Albaizar

Memoria historikoaren gaineko nobela topatuko dugu?

Egia esan, beste memoria batez aritu naiz nobelan. Izan ere, garai hartaz mintzatzen denean, gertaeretan, bandoetan, batailetan, pertsonaiengan... ipintzen da arreta, eta halako nobela asko eta asko daude. Beste zerbait egin nahi nuen nik, eta arreta pertsona arruntengan ipini; haiei buruz hitz egiten ez den arren, bizitzaren eta gizartearen parte diren haiengan. Neurri batean, amari egindako omenaldia da, nahiz eta hark ez zuen inola ere pairatu protagonistak sufritu duena, eta bila ibili diren emakume eta gizon horiei guztiei ere egin nahi izan diet omenaldia. Istorioa bilaketa bat delako.

Noren/zeren bila dabilta pertsonaiak?

Oso une gogor batean banatu zituzten pertsonaien bilaketa da. Istorioaren hasiera kontatuko dizuet: emakume zahar bat hil da eta dirutza handia utzi

du. Alaba notarioarengana joan da eta neba nagusi bat duela enteratu da. Herentzia kobratu nahi badu, neba topatu beharko du eta horretarako, ikertzaile bat kontratatu du. Ez dago nebaren arrastorik, eta pentsatzen dute, amaren ibilbideari jarraituta, beharbada, neba aurkituko dutela.

Meli da pertsonaia giltzarria.

Melik eta bere senarrak ezkontza zibila egin zuten Errepublika garaian, baina estatu-kolpearen ostean ezkontza zibilak bertan behera utzi ziren. Gainera, seme bat izan zuten eta Melik hura ezkutatu zuen, ken ez ziezaioten. Baina Meli salatu zuten, inbidiagatik, eta kartzelan sartu

"Memoria berreskuratzea inportantea da, justiziari lotutako kontua da"



zuten. Garai hartan, askok inbidiagatik eta liskar pertsonalengatik salatu zituzten lagunak eta senideak, eta hori gertatu zitzaion Meliri ere. Ez nuen gai politikoa aipatu nahi eta horretaz baliatu naiz.

Beldurrez bizi den emakumea da.

Eta garai hartan ez ezik bere bizitza osoan ere; eta kontuan hartu behar dugu oso bizitza luzea izan duela, gainera. Baina beldurra hezurretaraino sartuta zuen, buruan... Kostatu zait gerra eta frankista, falangista, errepublikano... bezalako hitzak ez aipatzea, baina arreta Melirengan ipini nahi nuen, eta azaldu zergatik zuen beldurra, zeintzuk izan ziren haren bizipenak.

Zer kontatu ahal diguzu beste pertsonaiei buruz?




KAFETEGIA
IAZI
JATETXEA
Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56



ASTIKENEMOTOR
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781



Sabin Askolizaga
Aseguru agentzen
Allianz
609 473 746
Mibone: 6 beheak
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 10 07
Fax: 94 453 60 27



batzuetan jakinda ere errepikatzen direla), eta gu historiaren parte eta emaitza gara, beraz, ezagutu egin beharko genuke hori. Gainera, pairatzen duen belaualdiak ez du inoiz ahazten.

Rajoyren gobernuak ez du dirurik eman memoria historikoaren berreskuratzeko. Zer deritzozu?

Diru-laguntzak eta erraztasunak emanez gero, gaur egun dagoen amorrua ez litzateke hain handia izango, ziur asko. Gertaerak onartzen direnean, ondo goaz; baina ezkutatzen saiatzen denean, bada, haserretu egiten gara. "Horiek istorio zaharrak dira edo aititaren gerra" esatea ere... ba, beitu, aitita oraindik dago bizirik, beharbada. Eta oso gogorra izan zen; gerra zein frankismoa. Gertatu ez balitz bezala jokatu nahi da; ba, ez, gertatu zen, eta onartu eta esan egin behar da.

Normaltasun politikoaz hitz egin-go da inoiz gure historiaren zati horri buruz?

Espero dut baietz, baina uste dut, horretarako, beste belaunaldi bat pasatu beharko dela. Gizartearen zati bat hemen ez dela ezer gertatu esaten setatzen den bitartean, ez dugu aurrera egingo.

Ikertzailea dugu. Berrogei urteko gazte bat, ez lanbiderik ez bestelako egitekorik duena, eta batez ere adulterioak ikertzen dituen. Bere etxean ez dute inoiz gai honi buruz hitz egin eta ez dakit zer gertatu zen. Gizona bilatzeko kontratatzen duenean, eta ikerketan aurrera egin ahala hasten da jabetzen garai hartan geratu zenaz. Gero, zaharrak ditugu: hitz egin nahi ez dutenak eta nahi dutenak. Eta azken hauek ere ez dute gorrotoz egiten.

Kostatu zaizu gai honi buruz hitz egitea?

Bai. Izugarri gustatzen zait idazten dudanean ondo pasatzea, baina hau gai mingarria da. Batez ere hasieran kostatu zitzaidan, gero zentratzen zara eta aurre-

ra jarraitzen duzu. Gainera, agiri pilo bat irakurri behar izan dut.

Memoria berreskuratzeko inportantea da, zure ustez?

Jakina! Herri honetan isilik eman ditugu urte asko, etxean hitz egiten, baina ez kanpoan. Protagonistetako batek esaten duen moduan, ez da mendekuari lotutako kontu bat, justiziari lotutakoa baizik. Zergatik isildu behar dut amari edo aitari gertatu zitzaiona? Zergatik ezin dut haren memoria, haren hezurak, berreskuratu? Eta ez naiz bandoen, politikaren ikuspuntu batetik ari, giza ikuspuntu batetik baizik. Inportantea da gertatu zenari buruz hitz egitea. Esaten da iragana ezagutzen ez duen herriak akats berberak egingo dituela (beno, egia da

 **ZAMUDIO**
Loteria Nazionalea

Leizaola L. plaza, 7

Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95

josuastorkiza@gmail.com

 **Goiri'78 s.l.**
Zerbitzu ofiziala



Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

Herriaren gazte arima berbizten

a: LB

"Hogeta bost kide inguru gara, 21 urtetik 23 urtera bitartekoak", azaltzen hasi jakuz gazteak. "Baina herriko beste persona batzuegandik be jasoten dogu laguntzea. Beste alde batek, aitatu beharra dago gurea ideologia politiko bako alkar-tea dala".

Euren ustez, Loiuko gazteek aukera gitxi dabe urtean zehar alkartzeko, eta hareei zuzendutako aisialdiko eskaintzea nahiko eskasa da. Era berean, azaldu deuskue, gaur egun, herrian ez dagoala batzarrak egiteko edota egitasmo asko aurrera eroateko azpiegitura egokirik. Horregaitik, herriaren gazte arima berbiztea hartu dabe helburutzat. "Herriko gazteek herrian egiten diran ekintzetan parte hartze aktiboa izatea gura dogu. Halan, gitxika-gitxika, hareei beren-beregi zuzendutako ekintzak antolatzeko asmoa daukagu. Herrian eurentzako lekua eta aukerak be badagozala ikus egien, eta hareengan ekitaldiak-eta antolatzeko gogo bizteko".

Idea pilo bat daukie buruan, epe laburrera zein luzera egingo dabezanak. "Esate baterako, laster Sukalki Eguna antolatzeko asmoa daukagu, eta epe luzeago bati begira, gazteentzako bidaiak eta urteerak egiteko aukerea aztertzen gabilz".

LOIUKO BAKARRAK GAZTE ALKARTEA

Loiuko Bakarrak Gazte Alkartea orain dala urte bi sortu zan, aspalditik gazteek herrian bete izan daben zeregina berbizteko asmoz. Alkartea gazteen partaidetzea bultzatzea dauka helburu nagusia eta herriko gazteen beharriaznei erantzuna emoteko. Horretarako, hainbat eskaintza soziokultural eroango dabez aurrera.



AmAr
ileapaindegia

Astearte-ostiralea:
9:00-19:00
Laburubata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

CAFE-BAR
BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

ERREKA
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Jatetxea **SAN ISIDRO**

KUNKO OMELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXKO GOZOGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefona 94 454 07 98
Fax 94 454 14 18

Mungialde etorbidea, 25
48160 DERIO

Nire Autocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAYA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefona-Fax: 94 454 51 92

www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

t o k a k

EGUNEKO MENUA

lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

*“Herriko gazteek
herrian egiten diran
ekintzetan parte hartze
aktiboa izatea
gura dogu”*

*“Epe luzeari begira,
gazteentzako bidaiak
eta urteerak egiteko
aukerea aztertzen
gabilz”*

Alkarte zabala da, eta, ondorioz, behin baino gehiagotan hurreratu dira herriko beste gazteengana, ekintzak batera egitera animetara. “Egia esan, euren laguntzea emon deuskue guk halan eskatu deutsegun bakotxean. Eta, jakina!, gura dauan guztiak daukaz alkar-tearen atek zabalik, izan be, laguntzea beti dator ondo. Gainera, hau hasierara baino ez da: Loiuko Bakarrak orain talde handia bada, askoz handiagoa izango da denporeagaz”. Alkarteagaz harremanetan ipinteko, mezu bat idatzi daiteke loiukobakarrak@gmail.com helbide elektronikora, edo Facebook gizarte-sarearen bitartez:



Loiuko Bakarrak Gazte Elkartea. “Orain arte herriko enparantzan batu behar izan gara gehienetan, ez daukagulako alkartzeko lokalik. Udalarri eskatu deusagu bat itxiteko, eta baietz esan deuskue”.

Txorierriko beste gazte batzuegana jo eben alkar-tea sortu ebenean, euren ideak eta esperientzia ezagutzeko. “Hareakaz batera lan egiteko asmoa euki genduan hasierean, baina hau dala beste dala, arazoak daukaguz beti taldekide guztiok alkartzeko, eta ez genduan kon-

promisorik hartu gura. Gertatu leitekela-ko gero huts egitea, beharbada. Dana dala, ez da albo batera itxi dogun aukerea, eta inoz gure laguntzea behar badabe, gu prest gagoz ahal dogun guztietan laguntzeko”.

Gogor eta gogoz

Urrian, Loiuko Gazte Eguna egin zan hirugarren aldiz, baina Loiuko Bakarrak alkar-teak antolatu dauan lehen edizinoa izan da. Egun osoan ekitaldi sorta zabala egon zan herrian, ume txikientzako puzgarriak, triki poteoa, gazte bazkaria, Taberna Ibiltariak girotutako arratsaldea... Une gorena gauean ailegau zan: eszena-tokira Guda Dantza, Akats eta Txapel Punk taldeak igon ziran.

“Oso balorazio positiboa egiten dogu. Izan be, inguruko beste herri batzuetan be jaietan egozan arren, jente asko hurreratu zan Loiura eta giro ikaragarria egon zan egun osoan. Gainera, gure helburua batez be gazteak erakartea bazan be, adin guztietako lagunak batu ziran Gazte Egunean. Itzela izan zan eta mundu guztia urten zan pozik”. Alkartekideek lan eta esfortzu handia egin behar izan eben, ekintza guztiak aurrera eroateko eta eguna ahalik eta ondoen atera eitean. “Baina dana zelan urten zan ikusita, me-rezi izan eban”.

Horrela, bada, Loiuko Bakarrak alkar-teko kideak gogor eta gogoz ibili dira, gazteei zuzendutako eskaintza soziokulturala handitzeko eta herria “gazteago” bihurtzeko.



ziurtagiriaren **elkartea**

bai
euskarari

baieuskarari.org

Bai Euskarari Ziurtagiria,
alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiten

urrats biziak

 /baieuskarariziurtagiria

 @baieuskarari

 www.baisarean.org



Ondarearen Europako Jardunaldien haritik, Larrabetzuk burdinagaz daukan loturea jaso genduan aurreko zenbakian. Oraingo honetan, Lezamarrek egin eben ibilpide gidatua ekarri dogu orri honeetara. Hurrengoak, Deriokoak.

Santa Kurtzeko burdin hesia eta Olazarre baserriko ola

Hitzordua Santa Kurtzeko ermitan ipini eben lezamarrek. Ermitaren gaineko lehenengo datu idatziak 1580. urtekoak dira; halanda be, eraikuntzea lehenagokoa da, ziur asko. Gaur egungo eraikina 1710. urte inguruan barritzut zana, eta uste da hango burdin hesia be garai hatakoa dala. Done Jakue bidearen zati bat hartzeaz gainera, Lezama zin-bidea be bazan. Beraz, handik persona asko pasetan zan, trafiko handia egoan, eta pentsau daiteke burdin-hesia ermitea dotoretzeko ez ezeze babesteko be egin zala. Kalidade handiko burdina da, eta urteetan zehar oso ondo kontserbau da. Goiko aldean amabirjinaren irudixua dauka, baina horretatik aparte ez dauka aitatzea merezi dauan berezitasunik. Hainbat dokumentutan irakurritako informazioa kontuan harturik, uste da burdin hesia Olazarre baserriko olan egina zala. Eta hurrengo geldialdia, bertan egin zan, hain zuzen be.

Olazarre baserria nahiko hur dago Santa Kurtzeko ermitatik. Beraz, ez da kasualidadea ermitako burdin hesia bertako olan egin izana. Azpiegiturea ola izan zan lehenago; eta errotea, beranduago. Agirietan adierazotakoaren arabera, burdina Mehatzaldetik ekarten zan eta han galdau egiten zan. Batez be baserrirako tresneria egiten eben, untzak, mailuak... Baita kanoi-bolak edota beste leku batzuetara lantzera eroaten ziran burdin-totxoak be.

Txatar mendia

Aitamen berezia merezi dau errekeko ura hara erodateko egin zan lan txukuna. Izan be, baserritik hur, errekearen ubide naturala aprobetxau eta ubide artifizial bat egin eben, ura olako antepararaino eroan ahal izateko, eta bertan batu eitean. Uraren indarra mailu mekanikoa mugiarazoteko erabilten zan, eta horrela burdina landu ahal izateko. Ubide artifizial hori ia kilometro batekoa da.



Anteparea oraindino dago ikusgai.

Bestalde batetik, eta esan deuskuen moduan, nahiz eta begi-bistan ez dagozan, oraindino be sarren aztarnak be topau daikuguz inguruan, landaren artean

arakatzen badogu. Horrela, bada, sarrak baserri ondoko leku baten itxiten ziran, eta gero, beharrezkoa bazan, handik hartzen ziran herriko beste lan batzuetan



Santa Kurtzeko burdin hesiaren detailea.



Presea egoen lekua.

*la kilometro bateko
ubide artifiziala
egin zan errekeko ura
olara eroateko*

erabilteko. Sarrak biltzen ziran lekuari "Txatar mendia" esaten eutsien.

Baina olen urrezko urteak pasau ziran eta sektorea krisialdian sartu zan. Olak errota bihurtu ziran eta Olazarre be egon zan hareen tartean. XIX. mendearen hasieran itxi eutsan ola moduan funtzionatzeari.

Besteak beste, preseaa dago ikusgai gaur egun inguruan, anteparea edo ura hartzeko andela, harrizko horma bat, makineria eta burdinazko gupil bat.

sarreraren salmenta
www.bbik.es
bbk

BFA DFB

SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

ANTZERKIA

TXANOGORRITXO

Glu Glu Producciones
Musikala, 3 urtetik aurrera
Abenduak 20, 17:00
Prezioa: 6 €

YOKO Y SUS AMIGOS

AG (2D)
Abenduak 5, 18:00 (GAZTELANIAZ)
Abenduak 6, 17:00 (EUSKARAZ)

DEUDA DE HONOR

(2D)
Abenduak 5, 20:30
Abenduak 6, 19:30

EL VIAJE DE ARLO

AG (2D)
Abenduak 12, 18:00
Abenduak 13, 17:00

LOS JUEGOS DEL HAMBRE. SINSAJA. PARTE 2

(2D)
Abenduak 12, 20:30
Abenduak 13, 19:30

OCHO APELLIDOS CATALANES

EG-7 (2D)
Abenduak 19, 18:00 / 20:30
Abenduak 20, 19:30

COCO, EL PEQUEÑO DRAGON

AG (2D)
Abenduak 26, 18:00 (GAZTELANIAZ)
Abenduak 27, 17:00 (EUSKARAZ)

EL PUENTE DE LOS ESPIAS

(2D)
Abenduak 26, 20:30
Abenduak 27, 19:30

ZINEA

2D: 4 € 3D: 6 €

*onartza: produktorearen behar-izanen arabera programazioak aldaketak jasan ditzake

Xuxen 5, zuzentzaile berria

Elhuyar Fundazioak eta IXA Taldeak Xuxen 5 zuzentzaile ortografiko eta gramatikal berria aurkeztu berri dute. Bi markada pasatu dira Xuxen euskarazko lehen zuzentzaile ortografikoa sortu zenetik. Hizkuntzalariek eta informatika-ingeniariek sortutako sistemak iraultza ekarri zuen ordenagailu bidez testuak idazten ditugunontzat. Handik hona, Xuxen zuzentzailearen hainbat bertsio sareratu dira: Microsoft Officerako, OpenOffice.org eta LibreOfficerako, web-nabigatzaileetarako, Adobe Indesign-erako...; eta, ortografia-akatsak detektatzeaz gain, proposamen gramatikalak egiten ere ikasi du Xuxenek.

Baina aldaketak oso azkar gertatzen dira informatika munduan, eta programa eta aplikazioak etengabe eguneratzen dira. Aldaketak gure hizkuntzan ere gertatzen dira; izan ere, Euskaltzaindiak arau berriak sortzen ditu, hitz berriak...

Horiek guztiak kontuan harturik, Xuxen ere joan da eguneratzen. Hala, 2014. urtean eguneratze guztiak ipini ziren xuxen.eus webgunean eta ordura arteko bertsiorik berrienak ere jarri ziren erabiltzaileen eskura. Orain, beste urrats bat egin dute, eta Ixa Taldeak eta Elhuyarrek Xuxen 5 ipini dute sarean, xuxen.eus/bertsioak webgunean doan deskargatzeko.

Azaldu duten bezala, Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuko* eta Elhuyar hiztegieta-ko azken aldaketak txertatu dituzte euskarazko lehen zuzentzaile ortografikoaren datu-basean, eta erregela gramatikalak berri- txertatu dituzte, Microsoft Officerako sortu duten azken zuzentzaileak proposamen ortografiko, lexiko eta gramatikal eguneratuak egin ditzan.

Hiztegia osatzeko aukera

Idazten gabiltzala, Xuxen 5-ek gorritz azpimarratzen ditu gure akats ortografi-

*Azken aldaketak
txertatu dituzte
zuzentzaile
ortografikoaren
datu-basean*

koak eta haiek nola zuzendu proposatzen digu. Bestalde, berdez edo urdinez azpimarratzen ditu hitzak, zuzenak izan arren, Euskaltzaindiak beste forma bat hobesten duen kasuetan, eta formak horiek zeintzuk diren jakinarazten digu. Azkenik, zenbait akats gramatikal ere berdez edo urdinez azpimarratu eta zuzentzeko proposamena egiten du.

Xuxen 5 Microsoft Office berrienetan (Office 2013 arte) erabiltzeko prest dago. Beraz, ordenagailura deskargatzen badugu, aipatutako hizkuntza zuzenketaz eta proposamenez baliatu ahal izango gara, Word-en testu bat idazten gabiltzala, adibidez. Eta erabiltzailearen hiztegia osatzeko aukera ere izango dugu, Xuxen 5-ekin batera erabiltzeko. Horrez gain, sistema hauetan guztietan txertatzeko pluginak berri- txertatu dituzte, zuzenketa ortografiko eguneratuak egin ditzaten: Openoffice/Libreoffice, Web-nabigatzaileak (Firefox, Chrome eta Internet Explorer) eta InDesign CS6 MAC.

Eta, jakina, xuxen.eus webgunean ere berri- txertatu dituzte datuak, zuzendu nahi dugun testua orri nagusiko testu-koadroan sartzen dugunean zuzenketa eta proposamen eguneratuak egin ditzan. Era berean, xuxen.eus webgunean erregistratzen direnek Xuxenen eguneratze eta nobedade guztien berri jasoko dute beren helbide elektronikoan.

Xuxen berria

Euskarazko zuzentzaile ortografiko eta gramatikalaren
plugin berriak zure ordenagailurako

**Xuxen 5-ek akats
ortografiko eta
gramatikalak
detektatu eta
zuzentzeko
proposamenak
egiten ditu
testuan bertan**

200 lagun konbidatu dituzte ezkontzara.

abc gonbidatu

Bihar ikusiko gara.

abc ikusiko dugu elkar

Doan deskargatzeko prest:
xuxen.eus/bertsioak

xuxen
ixa eta elhuyar da





Zelakoa da infernua?

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Dante Alighieri-ren *Divina Commedia* hirugarren kantuak Infernuko ateko idazkuna dakar, eta hauxe dino: *"Lasciate ogni speranza, voi ch'intrate"*. Hau da, galdu egizue esperantza guztia sartzen zarenok.

Kultura kristautasunaren bidez hartu dogunok, Bultmann-ek dinoan hiru solairutako kosmobisinoa jaso dogu: zerua goian, infernua behean eta erdian lurra, burruka-zelai izaten dana. Eta hortxe kokatzen da ETB1-eko telesaila "Herri txiki, infernu handi" atsoitza daukana izenburu; erdiko zelai horretan.

Nire itauna da -XXI. mende honi begira- ea zein dan gazte euskaldunen kosmobisinoa. Gurako neuke jakin. Edozelan be, gazteriaren kosmobisino horretan kristautasuneko aztarna ugari aurkituko geunke, seguru asko.

Horregaitik, nik uste, egoki, bidezko eta bidebatezko da inguratzen gaituan

kultura hori lantzea. Bestera, honelako erantzunak baino ezin emongo ditugu Bibliako Sansoni buruz:

–Nor zan Sanson?

–Sanson Sanson zan. Eta kito!

Gauza berbera gertatuko jaku artea ulertzeko unean –Rembrant-en Artemisa, kasurako– edo literaturan, toponimian nahiz madarikazinoetan.

Dana dala, zelakoa da infernua? Hori azaltzeko, adibideetara jotzea da egokiena. Kontatzen dau Luis Baraiazarrak –grazia handiz– Don Martin Uriarte sermoilari handia Zaldibarrera joan zala Aste Santuan, eta hainbesteko sermoia egin ebala bere trumoi ahotsagaz –kondenatuen egoera danteskoa deskribatuz: ezpanak sarnatuta, mihina atarata, sua dariola, zapo mortalak erpekin eta haginekin oratuta– ze, Zaldibarreko atso-agureek komentatu ebala jubilatuen egoitzan: "Hainbeste detaile txiker eta hain zehatz jakiteko, Don Martin honek infernuan bertan egonekoak izan behar dau".

RUBEN
ERLOJU-DENDA, BITXITEGIA

Lehendakari Urzola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 14 49

Peñasko
arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel: 94 452 0808

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagoiti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

RPM
MAYORISTAS INFORMATICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA

Nerea Pedrosa Cole, 517
COOP. SANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

Madariak txokolateagaz

Osagaiak:

- Zortzi madari
- Txokolate baltzeko estalgia
- 300 g azukre-hauts
- 4 koilarakada esne
- Kanela-txotx bat
- 1/2 l ur

Prestetako erea:

Madariak zuritu eta gordeko doguz. Kazuela baten azukera, kanela-txotxa eta ura ipiniko doguz eta almibar arin bat egingo dogu. Madariak kazuelan sartu eta irakiten itxiko doguz, harik eta bigun-

tzen diran arte. Kazuelatik atera eta hotzitzen itxiko doguz.

Beste alde batetik, txokolatezko estalgia zatitan ebagi eta zatiok beste kazuela baten ipiniko doguz. Hareekaz batera, esnea eta hiru koilarakada almibar. Surtan ipini eta txokolatea urtu arte eragingo dogu, eta nahasia trinko gelditu arte. Madariak erretilu baten ipiniko doguz eta txokolatez bustiko doguz. Gura izanez gero, menda belar edo fruta txiki batzukaz apaindu daiteke. Hozkailura sartuko doguz, mahaira atera arte.



Etxeko sukaldaritza

Itsas-oilarra, txakolin erara

t: Maite Lekerika

Osagaiak (4 lagunentzat):

- 800 g itsas-oilarra (zerrendatan)
- 50 g kipula (juliana eran ebagia)
- 20 g gurin eta gatz
- 200 ml txakolin zuria
- 100 ml esnegain
- 100 ml oliba orioa

Prestetako erea:

Labarako azpil baten arraina ipiniko dogu. Gatz botata eta orioz igurtziko dogu. Labara sartuko dogu, 185 gradutan eta 15 minutuan. Zar>tagin baten kipula erregosiko dogu orio eta gurinagaz. Txakolina gehitu eta urritzen itxiko dogu. Esnegaina botako dogu eta surtan itxiko dogu, harik eta saltsea loditzen dan arte. Gatz botako dogu. Arraina labatik atera eta saltsea gainetik botako deusagu. Gustukoa bada, perejil apur bategaz apaindu daiteke.



auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behe B 634 410 470
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

Centro Dental
Txorierri
945 475

Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodriguez Mella

Mitxel 6, behe - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larmialdiak: 670 985 885 - www.txorierri.com

LIBRERIA SONDIKA LIBURUDENDA

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkai)

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)



Zer irakurri?

New Yorkeko kronika beltza eta beste kontu periferiko batzuk

Atotz Goikoetxea (Derioko Liluratura)

Autorea: Gotzon Garate

Argitaletxea: Elea, 2004 (174 orr.)

Gotzon Garate handiaren pasadizoak New Yorkeko harlauzarik higatuenetan dabilta hara-hona. Zeruaren eta lurraren artean tinko eusterik ez duten gizakumeen argi-ilunak dira, pausorik pausora arnasbehartuta, hainbatetan etsipenak jota, iragaten direnena. Ipuin sorta batek osatzen du zorigaitz zirrargarrien katea. Eta ostendu egiten dira minutu guztiak erlojutik, lerroetan barna sartzen gara, erreparatu gabe gurpilek garraiatu edo besaulkiek eserita gauzkaten. Gotzonen lumari bizitzaren artea aspaldi ikasitakoaren kolorea dario; maisutasunez, bere egi-

ten du Samuel Johnsonen ideia, beti aintzat hartzen zuena: hizkuntza pentsamenduaren jantzia da. Euskalkien neurritz al-baindutako hariak galazko bihurtzen ditu narrazioen jantziak. Ez du alde batera uzten esperientziaren estilistakoa ("Ahaztu"), eta segida ematen dio bere ibilbide oparoan iaotasunez etxekotu duen nobela beltzari ("Jon Bidarteren beste kasu bat"). Mintzoa gardendu egiten zaio erakusteko zazpi probintzietako lurrek sortzen dioten lilura ("Esker ona").



Gizakiarenganako txundidurak elikatzen ditu orrialdeak; Gotzonek berak agertzen dizkigu Sofokles poeta tragiko grekoaren berbak: "Gauza asko dira harri-garriak; denetan harrigarriena, ordea, gizakia".

***Irakurleentzako oharra:** Akats tipografiko bat dela eta, Derioko literatura taldeko kideek orain arte sinatutako artikuluetan "Derioko Liluraturia" agertu da, eta ez "Derioko Liluratura". Azken hori da Derioko literatura taldearen izen ofiziala, eta horrela agertuko da hemendik aurrerakoetan.

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zaharrentzako Berriak, Logopedia, Podologia, Kiroprasiak

clínica dental **ZAINDUZ** hartz klinika

Txoriñeri elorribidea, 8 - Loria | Arriaga enakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentazaindus.com | www.dentazaindus.com

HAUR-MODA

TxIMELETA

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

TRIPPY TABERNA

Especialitatea: GIN TONIC

Beheko kalea - DERIO

Erakusketak

Derio

- > Gimnasia erritmikoaren erakustaldia. Abenduaren 12an, 18:00etan, kiroldegian. Miragarri taldeak antolatua.

Larrabetzu

- > Gabonetako postalak. Abenduaren 18tik urtarilaren 8ra arte, Anguleri kultur etxean.

Hitzaldiak

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: *Espedizioa. Mendi ororen pisua*, Juanra Madariagaren eskutik. Abenduaren 17an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.

Ikastaroak

Sondika

- > Udak ikastaroetan izena ematea. Abenduaren 9tik 14ra, liburutegian. Lekua zozketatzea: abenduaren 15a.

Derio

- > Aeromodelismoa. Abenduaren 13an, 11:00etan, Frontoian. SUBYKE taldeak antolatua.

Zamudio

- > Orri-markatzailak egiteko umeentzako tailerra. Abenduaren 12an, 11:30ean, liburutegian.
- > Udak ikastaroetan izena emateko azken eguna: abenduaren 18a.

Ikuskizunak

Derio

- > *Maddi pirata*, Ane Monna, Oskola eta Karramarroiren eskutik. Abenduaren 15ean, 18:00etan, Kultur Birikan.

Zamudio

- > *La corte del faraón*. Abenduaren 17an, 20:00etan, Arriaga Antzokian. Izena ematea: abenduaren 15era arte.

Larrabetzu

- > Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen *Amalur* lana. Abenduaren 22an, 18:00etan, frontoian.

Irteerak

Sondika

- > Serantes – Zierbena. Abenduaren 13an, 9:00etan. Izena ematea: abenduaren 9ra arte, liburutegian. Guraso elkarteak eta Udalak antolatua.

Derio

- > Ebroko arroiak. Abenduaren 13an, 7:30ean, Nagusien Etxean. Untza mendi taldeak antolatua.

Zamudio

- > Durangoko Azoka. Abenduaren 7an, 9:30etan, Txorierriko etorbideko garelkuan. Prezioa: 1 €.
- > Izki. Abenduaren 13an. Arroeta mendi taldeak antolatua.

Lezama

- > Ganguren. Abenduaren 13an, 9:30ean, eskolan. Gailur mendi taldeak antolatua.

Larrabetzu

- > Izenaduba basora. Abenduaren 19an. Izena ematea: abenduaren 1etik 16ra, Anguleri kultur etxean.

Kirola

Sondika

- > Frontenis txapelketa (bikoteka). Abenduaren 12an, 13an, 19an eta 20an, Goronda Biko kiroldegian.

Zamudio

- > Eskolartekoen eskupilota partidak. Abenduaren 12an, 16:30ean, frontoian.

Bestelakoak

Sondika

- > Gabonetako postalak aurkeztea: abenduaren 4ra arte, Udaletxean.

Derio

- > Tokiko Agenda 21. Abenduaren 16an, 19:30ean, Kultur Birikan. DerioKOMunikazioak antolatua.
- > Gabonetako bingo berezia. Abenduaren 23an, 19:30ean, Nagusien etxean.

Zamudio

- > Lagunandre elkartearen urte amaierako bazkaria. Abenduaren 12an.
- > Adintsuen taldearen urte amaierako bazkaria. Abenduaren 19an.

Larrabetzu

- > Txikientzako irakurketa saioak. Abenduaren 11n, Anguleri kultur etxean.

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldieta ikastaroak
Aisialdiako landak - Apopile zerbitzua
Salto - Txangoak - Animalien heziketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 88 • 48196 LEZAMA



BOLALEKU
JATETXEA

10 URTEREKO

Garaioa: 1 - LEZAMA
94 455 41 10
Jasotze Facebook

- Hainbat menu
- Karta
- Ospakizunak
- BOLAPARK



KIMA
Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Garaioa 59 • Tel: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (HEZKAILA)



LEJARRENE JATETXEA

Garaioa auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46



Reformas Rivero

Especialitateak: igeltserotza eta pintura
Konpromisorik gabe aurrekontuak
Azkarak, garbiak eta merkeak

t: 603 109 852
luis_alberto_rivero_1984@live.com



GOXO-GOXO LOHIZUN

Astretaldeak zabalik
Ogile egutero
Postalak onargarriak

Garaioa, 77c
48196 Lezama
94 455 42 72
goxogoxolohizun@hotmail.com



ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburategietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTAN TXORIERRIKO ELUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuak kudeatzeko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko balmena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

Derio

BEREZKO ARGIA DUEN MERKATARITZA



500 € NAHI?

5 treke zozkatuko
ditugu Derioko
merkatarari elkarteak
kideen saltokietan
erasketak egiteagatik

Elkartekide diren 3 saltokitan egiten dituzun 10 €tik
gorako erosketengatik. Azaroaren 2tik abenduaren
26ra. Oinarriak saltokietan izango dira.

ERAKUSLEIHOEN LEHIAKETA

Abenduaren 1etik 26ra

Parte-hartzaileen artean
50€-ko HIRU TXARTEL
zozkatuko dira.

**Aukeratu zure gogokoena,
gozatu eta irabazi!**

ZOZKETA abenduaren 29an egingo da
Kultur Birikan, 20:00etan,
GABONETAKO GALA HANDIAN



Derioko Zerbizuetako Merkataritzako
Elkarte Profesionala

aneriak paraje!

Asociación Profesional de
Comercios y Servicios de Derio

Derio

Derio.com



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN
ETA LEHIAGAITASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD